

## Herririk herri

Durango Azoka Korrika laguntzailez  
betetzeko gonbita luzatu du AEK-k >3



## Gerediaga-Elorrio errepideko tunel luzeena amaitu dute

Egunero bostehun beharginek dihardute Abadiñoko Gaztelua auzoko  
obretan lanean; proiektuak 212.563.000 euroko aurrekontua du

Gerediaga-Beasain autobideko obrek aurrera jarraitzen dute. Beharginek Gerediaga-Elorrio zatiko tunelik luzeena, 1.141 metrokoa, zulatzen amaitu zutela aitzakia hartuta, obretan bertan eman zuten prentsurrekoa. Abadiñoko eta Elorrioko alkateez gainera, Unai Rementeria diputatua eta Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusia izan ziren bertan. Atxondoko alkateak, berriz, ekitaldian parte ez hartzea erabaki zuen. Bilbaok azaldu zuenez, 2016ko udarako autobideko obrak amaitzea espero dute. >4

## Andeka Gorrotxategi operaren gailurrean

Madrilgo, Erromako, Sidneyko, Brasilgo zein Pekingo agertokietan opera abestu du Andeka Gorrotxategi tenor abadiñarrak. Bihar, Andra Marian egingo du geldialdia. >11

Lehior Elorriaga.

**GOIURIA**  
JATETXEA  
ERRETEGIA



46€  
BEZa barne

**Modisten afaria**  
Zapatua 2014-12-13  
Djarekin dantza saioa

MENUA

Urdaiazpikoa  
Onddo entsalada  
epela  
Otarraixkak

Txuleta zaitua  
edo  
arkume txutela

Tarta eta kafea  
Ardo ondua edo  
ardo gorri aparduna

Goiuria auzoa, 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia) • Tel.: 946 810 886 • www.asadorgoiuria.com

### Durangaldea > 7

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka protestak antolatu dituzte hainbat herritan

### Elorrio > 8

Urkullu lehendakariak inauguratu du Eroskiren lantegi berria

### Durango > 2

Faustegoienako eteen baldintzak berriro malgutu ditu udalak

### Zornotza > 6

Nañonen 10. urteurrena egun osoko jaiagaz ospatuko dute

## Herririk herri

# Faustegoienako etxeen baldintzak berriro malgutu ditu udalak

Saltzeko arazoengatik, kooperatibakoek ezin dituzte eraiki Faustegoienako etxeak

**DURANGO** Markel Onaindia Faustegoienako babes ofizialeko etxeak saltzeko arazoak bere horretan jarraitzen du, eta etxeen erosle diren kooperatibakoek ezin dute obra hasi. Horregatik, baldintzak malgutu ditu berriro udalak, eta kooperatibagaz daukan hitzarmena aldatu egin da. Alde batetik, ordainketa epea luzatu dute. Bestetik, eskatzaile berriek inskripzio txandaren arabera jasoko dute etxea, eta eskaera egiten duten une horretan salgai dagoen edozein etxe aukeratu ahaliko dute.

2012an onartu zuten Faustegoienan babeseko 118 etxe egiteko proiektua –hamasei alokairuan–, eta urteotan aldaketak egin dituzte promozioan, eskatzaile faltagatik. Egitasmoa bitan zatitu zuten lehenik, lehen fasean 70 eraitzeko. Gero, eskatzaile zerrenda Bizkai osora zabaldu zuten. Dagoeneko 111tik gora dira uko egin dutenak.

Hitzarmeneko aldaketak EAJk, PSE-EEK eta PPK babestu dituzte. EAJk “Durangorentzat onuragarria” delako, Goiztidi Diazen berbetan. Pilar Riosen

(PSE-EE) ustez, proiektua atzeratzen dabil, baina aurrera ateratzea beharrezkoa da. Juan José Gastañazatorreren iritziz, hitzarmenak “impasse” egoeratik irteten lagundu dezake.

Bilduk eta Aralarrek alokairuaren alde egin dute. Jon Bingen Landabideak (Bilduk) adierazi du jendeak ez duela mailegurik lortzen, eta “EAJren eredu”, jabetzakoa, amaitu dela uste du. Dani Maeztuk gogoratu du 1.073 durangar daudela Etxebiden izena emanda, eta %78k alokairua eskatu dutela.



Faustegoienako lurzoruan eraikiko dituzte babes ofizialeko etxeak.

# Euskara arloko Bikain ziurtagiria jaso du Ibaizabal ikastolak

“Lanean jarraituko dugu ikastola bere egunerokoa hobetzen”, esan dute



Kepa Zengotitabengoa, eskumatik lehenengoa, kargudunekin.

**DURANGO** M.O.

“Kanpotik datorren esker ona bikaina da, baina inoiz ez bidearen helmuga”. Hausnarketa hori plazaratu du ohar bidez Ibaizabal ikastolak, euskararen arloko Bikain ziurtagiria jasoztean. Euskararen aldeko lanean jarraituko dutela adierazi

dute, eta euren proiektuan ikastetxeko kide guztiak garrantzitsuak direla uste dute: “Lanean jarraituko dugu ikastola bere egunerokoa hobetzen, euskaragaz eta Euskal Herriagaz dugun konpromisoa berretsita”.

Azaroaren 18an egin zuten ziurtagiriak emateko ekitaldia,

Donostian. Besteak beste, Iñigo Urkullu lehendakariak, Cristina Uriarte sailburuak eta Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak parte hartu zuten. Kepa Zengotitabengoa ikastolako presidentek jaso zuen oroigarria. Guztira, 39 enpresa eta erakunderi adierazi zieten esker ona. 138 lagun ibili dira ziurtagiriaren ebaluazioa egiten, eta euretako bat Ibaizabalekoa izan da.

**Ikasleen azoka**

Ibaizabal beste gai bategatik ere bada albiste. Haur Hezkuntzako Goi-mailako Zikloko ikasleek bigarren eskuko azoka antolatu dute domeka honetarako, hilaren 30erako. Merkatu plazan izango da, 09:00etatik 15:30era, eta arropak, bitxiak eta dekoraziorako gaiak salduko dituzte. Etekina ikasbidaia finantzatzeko laguntzeko erabiliko dute.

# Work-kafe erraldoia egingo du Sarek

Euskal preso sakabanaketaren aurkako sare herritarrak ‘sarekide’ izateko gonbidapena egingo du

**DURANGO** M.O.

Sare mugimendu herritarrak euskal preso sakabanaketaren kontrako liburuxka bat argitaratu du, eta mundu osoan zehar zabaldu gura du. Horretarako, liburuxka ahalik eta esparru gehienetan partekatze, sarekide izateko deia

egin du. Herririk herri dabilta sarekideak lortzen, eta Durangoko Azokan ere emango dute aukera. Abenduaren 7an work-kafe edo solasaldi erraldoi bat egingo dute, 12:00etatik 13:00etara, Landako Gunearen inguruan. Amaieran, argazki bat aterako dute.



Durungaldeko zenbait ‘sarekide’, hilaren 7rako deialdia egiten.

### Laguntzaileak:

**BFA DFB** Bizkaiko Foru Aldundia  
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO AMOREBIETA-ETAÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA MALLABIA ATXONDO MAÑARNA OTXANDIO ZALDIAR

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutakoa

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-lurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa:  
946 232 523  
Publizitatea:  
946 217 902  
publi@anboto.org

2014ko azaroaren 28 a,  
12. urtea - 568. alea

**Zuzendaria:**

Jone Guenetxea Arrinda.

**Administrazio burua:**

Itziar Belar Zubizarreta.

**Administrazioa:**

Miren Abasolo Txabarri.

**Publizitatea:**

Goiretti Alonso  
Armendia, Amaia Huarte Basabe,  
Itxaso Altuna Marina.

**Erredakzioa:**

Aitziber Basauri Gandiaga, Itsaso  
Esteban Urriaga, Joseba Derteano  
Bilbao, Markel Onaindia Txabarri  
eta Amaia Ugalde Begoña.

**Maketazioa:**

Eider Alberdi Bengoa.

**Zuzentzailea:**

Jon Ander Urkiaga Egidazu.

# Durangoko Azokan Korrika laguntzaile egitera deitu dute

19. Korrikan Durangoko Azoka omenduko dute

**DURANGO** Markel Onaindia Durangoko Azoka Korrika laguntzailez betetzea. Helburu hori aurkeztu zuten atzo AEK-k eta Gerediaga Elkarteak, dagoeneko Durangoko Azokarako prestatzen dabiren Landako Gunean. 2015eko martxoaren 19tik 29ra izango da Korrika 19, *Euskahaldun* lelopean, eta ekimen horren laguntzaile izatera gonbidatu dituzte herritarrak.

Erakunde bien arteko elkarlanaren erakusle izan zen aurkezpena. Izan ere, Gerediagako Nerea Mujikak elkarte Korrika laguntzaile bihurtu dela adierazi zuen: "Kuadrilla beraren parte garelako". Bere ustez, lagunaren artean gozatzen da

gehien euskaraz eta kulturaz, eta hortik dator kuadrillaren metafora. Ekimen bien ibilbide luzeak ere alderatu zituen: "Ez genekien bi ekimenok zenbat kilometro egingo zituzten, ezta atzetik zenbat jende etorriko zen ere. Baina martxan dagoen herria da gurea". Korrika 19ren barruan Durangoko Azoka omenduko dute, datorren edizioa 50.a izango delako. Abenduaren 7an ere egingo dute omenaldi horren aurrerapen bat, 20:30ean, Ahotsenean.

Mertxe Mugika AEK-ko koordinatzaileak azaldu zuen aurten euskara ikasle gehiago matrikulatu direla: "Datuek erakusten dute lan ona egiten



Asier Amondo (Korrika arduraduna), Mertxe Mugika eta Nerea Mujika. AEK.

gabiltzala". Baina, euskaltegien sarea indartzeko, laguntza handiago eskatu zien erakundeei, eta Nafarroan 2012tik "zentimobat bera ere" ez dutela jaso kritikatu zuen. Euskara ikastea doa-

koa izatea eskatu zien erakundeei. Diru hutsunea betetzeko, 12 euroren truke Korrika laguntzaile egin ahalko da euskaltegietan, Korrikaren webgunean eta Durangoko Azokan.

## Ipuin kontalaria abenduaren 3an, Euskararen Eguenerako

**MALLABIA** Jone Guenetxea Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, abenduaren 3an ipuin kontalari emanaldia antolatu dute Mallabiko eskolan. Haur Hezkuntzako 2, 3, 4 eta 5 urteko umeengana, eta Lehen Hezkuntzako geletara gerturatuko da goizean Itziar Gamero ipuin kontalari busturiarra.

Bestalde, Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, *Euskaraz bizi nahi dugu* leloa duen pankarta koloretsua jarri, eta mantenduko du udaletxeko balkoian. Gainera, webgunea duten entitate edo enpresak .eus domeinua eskuratzera animatu ditu. Gogorazi dutenez, edozein hizkuntz eskubide urratua sumatzen duten herritarrek kexa jarri dezakete Behatokian zein Elebide zerbitzuan.

## Gaztetxeak XVI. urteurrena ospatuko du gaurtik domekara

**ATXONDO** Joseba Derteano Atxondoko gaztetxeak sortu zeneko XVI. urteurrena ospatzeko ekitaldi sorta antolatu du astebururako. Gaur, 19:00etan, tarta egiteko ikastaroa egingo dute gaztetxean bertan. Hu-

Bihar Kalibre 11, Amorrú, Klak!son eta DJ Bull taldeen kontzertuak egongo dira Apatako gaztetxean

rrengo egunerako postrea elkarlanean egitea da helburua, eta tartak zelan egin ikasi gura duten herritarrei gonbita egin diete bertaratzeke.

Bihar, 11:00etatik aurrera, gisatu txapelketa egingo dute gaztetxe aurrean ipinitako karpan; gaztetxeak ogia eta edaria ipiniko ditu. Gainerako osagaiak parte-hartzaileen esku geratuko dira. Ondoren, bazkaritara batuko dira; ostean, igel txapelketa eta triki-poteoa egingo dituzte.

Gauean, musika izango da protagonista. 22:30etik aurrera Elorrioko Kalibre 11, Eloorri-Apatako Amorrú eta Antzuola-Urretxuko Klak!son taldeen kontzertuekin gozatzeko aukera egongo da. Ondoren DJ Bull arduratuko da jaiari jarraipena emateaz.

## Berrizko berbakera eta ohiturak ezagutzeko fitxa didaktikoak abian

**BERRIZ** Amaia Ugalde Urteak dira Berrizen nagusien testigantzak batzen hasi zirenetik. Herriko ondarea eta hizkera gordetzeko eta zabaltzeko asmoagaz, testigantza horiek bideoan ikus daitezke Labayru ikastegiaren [www.herriondarea.org](http://www.herriondarea.org) webgunean. Orain, bideoez gainera, ariketak dituzten fitxak sortzen hasi dira, Berrizko ohiturak eskolan eta euskaltegian lantzeko, eta horren aurkezpena egingo dute datorren eguaztenean, Euskararen Nazioarteko Egunean. 19:00etan hasiko da ekitaldia, Kultur Etxean, eta bideoak ikusi eta fitxen aurkezpena egin ostean, Ain\_1 musika taldeak kontzertua eskainiko du.

**Gaurtik, Euskararen Astea** Abenduaren 3ra bitartean, hainbat ekintza egongo dira Berrizen, Euskararen Astea dela-eta. Gaur, 19:00etan hasiko dute kantu-poteoa, Olakueta plazan, Bentzaharreko mutiko alaiak taldeagaz.

Domekan, *Palaziotik Ereñara* izeneko toponimia ibilbidea egingo dute, herriko toponimia ezagutzeko. Udaletxean, 10:00etan ipini dute hitzordua, eta amaitzean hamaiketako izango dute. Abenduaren 2an, bestalde, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna egingo da 17:00etan. Sarrerak 5 euro balioko du.

# BM GELTOKIRA IRITSI DA

↑ DURANGO GELTOKIA

## A B E N D U A K · 4

LUR AZPIKO APARKALEKUA  
**DOAN!**  
Sarbidetuzena BMra

**9:00-21:00**

ETENGABEKO ORDUTEGIA  
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

aldea dago

# Gerediaga-Elorrio autobideko tunel luzeena amaitu dute

Egunero bostehun beharginek dihardute Gazteluan lanean, eta 212.563.000 euroko aurrekontua du obrak

**ABADIÑO** Itsaso Esteban Gerediaga auzoa eta Elorrio lotuko dituen Gerediaga-Beasain autobideko bigarren tunela zulatzen amaitu zuten eguazten eguerdian. Besteak beste, Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahal-dun nagusia, Unai Rementeria Lehendakartzako diputatua, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraio diputatua, eta Jose Luis Navarro Abadiñoko eta Ana Ota-ndui Elorrioko alkateak izan ziren zulketa lanen amaierarako antolaturiko ekitaldian.

**1.141**  
metroko luzera du  
eguaztenean zulatzen  
amaitu zuten tunelak

Tunelera bisita egin ostean, adierazpenak egin zituen Jose Luis Bilbao ahal-dun nagusiak, eta obra honek Bizkaiko Foru Aldundiak Durangaldeagaz duen konpromisoa erakusten duela azpimarratu zuen: “Eskualdeari balioa ekarriko dion azpiegitura bat da hau: komunikazio bide moderno eta seguru baten bidez

lurraldea egituratuko duen ardatza”. Durangaldeak dauzkan “mugikortasun arazoei” irtenbidea emango dioten lanak direla autobidearenak, eta eskualdeko biztanleen bizi-kalitatean eragingo dutela azpimarratu zuen ahal-dun nagusiak. Sei kilometro eta erdiko autobide hau egunero 12.200 ibilgailu inguruk erabiliko duela aurreikusten du Bizkaiko Foru Aldundiak.

Abadiño eta Elorrio arteko tartean egingo dituzten bi tuneletan luzeena da asteon zulatzen amaitu dutena: 1.141 metroko luzera dauka. Egunero bostehun beharginek dihardute Gazteluan lanean, eta 212.563.000 euroko aurrekontua du obrak.

Gaztelua auzoan egiten diharduten azpiegitura lan hauen kontrako jarrera agertu dutenen kontraesanei buruzko aipamena, “lizentzia dialektikoa”, ere egin zuen Jose Luis Bilbaok eguaztenean: “Hau bezalako proiektuen kontra bozkatzten dutenek ere erabiliko dute autobide hau, herrialde honetan sarri gertatzen den moduan”.

Bizkaiko ahal-dun nagusiak azaldu zuenez, 2016ko udarako espero dute amaitzea autobideko zati horretako lanak.



Abadiñoko eta Elorrioko alkateek parte hartu zuten eguazteneko ekitaldian.

## Atxondoko Udalak ez du ekitaldian parte hartu

Ez joateko arrazoiak azaldu ditu Elizburu alkateak

Atxondoko Udala ere gonbidatu zuten eguazteneko Gazteluko lanen bisita ekitaldira. Atxondoko gobernu taldeak zabaldu duen oharrean azaltzen denez, Itziar Garamendi Bizkaiko Aldundiko Herri Lan eta Garraio diputatua bertaratzeko gonbita luzatu zion Atxondoko Udalari. Udaleko ordezkariak ez zen bertaratu, baina, eguazteneko ekitaldira. Ez joatea zergatik

erabaki duten azaltzeko, Rosa Elizburu alkateak sinaturiko oharra zabaldu du udalak.

“Lanak hasi zirenetik arazoak eta irregulartasunak” izan dira Atxondon, gobernu taldeak dioenez: “Lur-jabeen kekek, ganadu jabeenak, auzotarrenak, baso bideen erabiltzaileenak, udal-azpiegiturari eta ingurumenari egindako kalteei buruzkoak...”. Obra honen gaineko informazio es-

ke Bizkaiko Foru Aldundira jo duenetan ez duela “ganorazko erantzunik jaso” salatu du Atxondoko Udalak.

Duela hiru urte obra honen desjabetzeen prozesua abiatu zutenetik duela gutxira arte, udalaren lursailak hartzeagatik ordaindu beharrekoa ez dutela jaso ere kritikatu dute: “Bizkaiko Aldundiak eta erakuntza enpresak ia ordaindu barik hartu nahi zituzten udal jabetzako lurrak”.

Eskaria luzatu dio Atxondoko Udalak Herri Lan eta Garraio sailburuari: “Alkateekin argazkia atera nahi duenean ipintzen duen arreta bera jar diezaiela gure eskari eta salaketari”.

## Kuba ezagutarazteko elkartasun jaialdia

Gaur, bihar eta etzi askotariko ekintzak izango dira

**ABADIÑO** I.E.

Asteburu osorako ekintzak prestatu ditu Euskadi-Cuba elkarteak, Abadiñoko gaztetxearen laguntzagaz, Ireki leihoa Kubari izeneko jaialdian. Kubako Viñales herriko Ventana al Valle proiektu soziokultural komunitarioa ezagutaraztea da asteburuko jaialdiaren helburua. Turismoaren eraginez eraldatzen dabiren Kubako inguru horretan hainbat ekintza kultural sustatzen dabilta; bertako musika, dantzak eta antzerkia, esate baterako.

Kubaren egoera sozioekonomikoari buruzko mahai inguru egingo dute, adibidez, bihar, 12:30ean, gaztetxean: Euskadi-Cuba elkarte eta Ventana al Valle taldeko kideek hartuko dute parte. Bestalde, *El maestro saharai* dokumentala ere

emango dute asteburuan, Abadiñon: Kubara ikastera joandako saharaien errealitateari buruzkoa da dokumentala.

Kubako Viñales herriko Ventana al Valle proiektu komunitarioa ezagutaraziko dute Abadiñon

Danieuris Moya eta Danielis Moya ahizpek osaturiko Las dos D bikotearen musika emanaldia izango da jaialdi honen barruan, bihar, 17:30ean: Kubako eta Euskal Herriko kantak eskainiko dituzte. Kubako dantzek ere izango dute lekua; izan ere, yoruba dantzen erakustaldia eta dantza kubatarren ikastaroa egingo dituzte.

## Irratizaleen elkargune izango da etzi Astolako kirolgunea

**ABADIÑO** I.E.

Bizkaiko Irratizaleen Elkar-teak egitaraua osatu du etziko: Irratizaleen Eguna ospatuko du Abadiñon. Astolako kirolgunean elkartzeko dira parte-hartzaileak, eta, besteak beste, berbaldi bi eskainiko dituzte: irratizaleen sateliteen iraganaz, gaur egungo egoeraz eta etorkizunaz egingo du berrak Cristobal Garciak, eta IMS sistemari buruz mintzatuko da Fidel Liberal EHUko telekomunikazio irakaslea. Goizeko ekintzen ostean, bazkaritara elkartzeko dira irratizaleak.

Irratizaleen sateliteen iraganari, egungo egoerari eta etorkizunari buruzko berbaldia eskainiko dute



## Egun bat Baqueren bizitzan

Cafés Baquen goizero etxe ugari gure kafearen aroma eta zaporeagaz esnatu daitezten, baita bazkalondoan familia eta lagunekin batera jatorri onenetako kafe katilu batez disfrutatu dezaten ere, urteak daramatzagu lan egiten. Horregatik, kalitate eta operazio prozesuetatik bisita gidatua egin ostean, eta talde komertzialagaz ibilgailuetan joan eta gero, gure hirugarren eta azken geldialdia Cafés Baqueko Elikagaigintza Departamentuan egingo dugu.

Juan Manuel Herrero, departamentuko zuzendariak, hamar urte baino gehiagoko esperientzia duten bost pertsonen osatutako taldea koordinatzeaz arduratzen da.

• Zein da zuen eguneroko lana? Kontsumitzaile guztiei Baqué produktuak hurbiltzea da gure lana, eta, banaketa kanal modernoak erabilita, saltoki kopururik handienan egotea, erreferentzia zenbaki handienagaz eta baldintza onenetan.

• Gaur egun Baqué produktuak Euskal Herriko elikagaigintza kate printzipaletan aurkitu ditzakegu. Zer inplikazio mota ditu presentzia horrek? Horrek gure bezeroekiko konplimenduei dagokienez, erantzukizun handia inplikatzan du:

“*Gure sekretua gertutasuna eta kalitatea dira, kontsumitzaileek Baqué kafea aukeratzen jarrai dezaten*”

kalitatea, zerbitzua, eskakizun administratiboak, prezioak eta abar. Inplikazio horiek enpresa moduan hazten laguntzen digute, baita prozesuetan hobetzen eta, azken finean, profesionalagoak izaten ere, lehiakortasunean hobetze etengabea bilatuz.

• Kontsumitzailearen buruan presentzia gehien duen marka da Cafés Baqué, eta horrek, elikagaigintza kanalean duzun presentzia zabalagaz batera, Durangaldean merkatuko lehen postuak betetzera eraman zaituzte. Denda eta supermerkatuetan hainbeste marka egonda, zein da zuen sekretua kontsumitzaileek Baqué kafea aukeratu dezaten gaur egun? Gure sekretua gertutasuna eta kalitatea dira. Gure bezeroekin eta gure kontsumitzaileekin dugun gertutasuna. Kalitatea produktuetan, gure taldea osatzen duten pertsonen kalitatea, kalitatea ematen dugun zerbitzuan.

• Behin baino gehiagotan hitz egin digute denda eta supermerkatuetako banaketari buruz, hauek era zehatz batean antolatuta daudelako kontsumitzailearen erosketan eragiteko. Erosketak egiterako orduan, zenbateraino

eragin dezake produktu baten linealean duen posizioan edota beste kokapen batek? Asko eragiten du. Denda barruko kokapena oinarritzkoa da salmentetarako, denda barruan gune hotzak eta gune beroak daudelako. Lineal be-



*Inmagaz, Baquen ia 20 urteko esperientzia duen Salmenta Puntuako Gestoreagaz, ibilgailuan igoko gara. Bera da dendetan Baqueren irudia, begiak eta ahotsa, eta bere zeregina ahalik eta salmenta-puntu gehien bisitatzea eta horien leialtasuna lortzea da. Horretaz gainera, zentralagaz lortutako akordioak kateetan betetzen direla ziurtatzen du, hau da, erreferentziak bertan daudela, stock nahikoagaz, promozioak, eta abar; salmenta aukerak hautematen ditu (ikuspen hobekuntzak, produktu sorta handiagotzea, erakusketa gehigarriak, PLV materialaren kokapena), eta denda eta Baqueren arteko feedback bat ematen du maila guztietan: merkatua orokorrean, Baqué, lehiakideak, bezeroak, kontsumitzaileak, eta abar.*

Juan Manuel eta Inmari esker aurpegia eta ahotsa jarri diogu talde honek egiten duen lanari, egunero eskualde osoan ibiltzen direlako, gure etxeetan Baqué kafe katilu batez disfrutatu dezagun.

# Egun osoko jaia antolatu du Nañonek, hamar urte egin dituela ospatzeko

Besteak beste, kale ikuskizunak, musika eta herri bazkaria izango dira bihar

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Aurten hamar urte bete dira Nañon Zorrontzan Euskeraz elkarrekin sortu zenetik. Abenduaren 3an Euskaren Nazioarteko Eguna dela aprobetxatuta, egun osoko jaia antolatu dute elkarrekin kideek biharko. *10 urte arka-laz euskeraren egunean* leloagaz hamarkada bat bete izana ospatuko dute herritarrekin.

Zapatuan, 12:00etan, gaztetxoentzako ipuin kontalari saioa izango da Luis Urrengoetxea kaleko parkean, Irrien Lagu-

nak klubeko Marikalanbreren eskutik. Ondoren, 13:00etan, Euskorleans Dixie Band taldeak abesti ezagunen jazz bertsioak eskainiko ditu Tomasa taberna paretik abiatuko den kalejiran. 15:00etan, herri bazkarian batu-ko dira Propi jatetxean. Bazkaritarako txartelak Tomasas eta Urtzan eskuratu daitezke gaur iluntzera arte. Bazkalostean, 17:00 inguruan, Arratiako Jokaldi taldeak erromeria eskainiko du. Urteurren jaiari perkusioa, musika eta kale antzerkia uz-

tartzen dituen Psycho-Clown ikuskizunak emango dio amaiera; 20:00etan abiatuko da Luis Urrengoetxeako parketik.

Nañon 2004an sortu zuten, euskararen erabilera bultzatzeko eta herrian sare euskalduna eratzeko helburuz. Gaur egun, 50 bazkide inguru ditu. Euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekintza garatzen ditu urtero, herriko askotariko elkarte eta eragileekin batera; esaterako, *Euskeraz bizi gura dot* herri lasterketa.



Nañonek antolatzen duen 'Euskeraz bizi gura dot' herri lasterketako irudi bat.

## Mahai-jokoen inguruko jaialdia bihar eta etzi Zelaieta zentroan

**ZORNOTZA** J.D.

Mahai-jokoen inguruko Jokoen jaialdiak bosgarren aldia egingo du aurten. Iaz 1.000 lagunetik gora batu zituen. Aurten ere gaztetxo zein helduentzat 100 mahai-jokotik gora egongo dira Zelaieta zentroan, zapatuan zein domekan, 11:00etatik 20:00etara. Era guztietako publikoari zuzenduta daude jarduerak, jokoetan adituak direnei zein hasiberriei. Gaztetxoentzako ludoteka bat ere egongo da.

**Bideo lehiaketako sariak** Bestalde, gazteak diskriminazioaren inguruan sentsibilizatzeko helburuz, Ametxeko Gazteria Sailak antolatutako *Not in my town* bideo lehiaketaren sari banaketa egin zuten joan zen zapatuan. 14 urtetik gorakoekin epaimahaiaren saria Irati Lejarraga eta Eneko Palomero irabazi zuten; publikoaren saria Naia Arbuluk eta Jabi Montesekek lortu zuten eta 14 urtetik beherakoekin saria Mikel Aiesta, Ibon Bilbao eta Unai Bayonek.

## Hontza natur zientzien museoa zabaldu dute

Astelehenak kenduta, egunero egongo da zabalik

**MAÑARIA** Markel Onaindia

Enrike Huertak urtetan amestutako Hontza museoa egia bihurtu da, astelehenean inauguratu eta gero. Natur zientzien inguruko jakin-minari erantzun dio hemendik aurrera. Astelehenak kenduta, gainerako egunetan zabalik egongo da. Astegunetan 17:00etatik 19:00etara bisitatu ahalgo da, eta asteburuetan goizez ere bai;

zapatuetan 11:00etatik 13:00etara, eta jai egunetan 11:00etatik 14:00etara. Ikastetxeetakoak eta talde bereziak hartzeko aukera eman dute, eta 946 216 555 telefonoan erreserbatzea eskatu dute.

Museoagaz batera, Oskoldunak izeneko aldi baterako erakusketa zabaldu dute. Huertak 1962an hasi zuen ikerketa lana, eta, guztira, 36.000 ale baino gehiago dauzka gordeta.

## Gaztardogi azoka atonduko dute abenduaren 6an

**IZURTZA** Jone Guenetxea

IV. Izurtzako Gaztardogi Azoka antolatuko dute abenduaren 6an, San Nikolas egunez, herriko pilotalekuan. Goizeko 11:00etatik 15:00etara baserriko produktuez betetako hemezortzi stand jarriko dituztela azaldu du Luis Ballarin alkateak. Gazta, ardoa eta ogia dira azoka

honetako produktu izarrak. "Gehienak Durangaldekoak dira. Hala ere, beste lurralde batzuetatik ere etorriko dira. Iparraldetik pate ekoizle bat etorriko da, esaterako". Izurtzako bost artisauen postuekin birliduko dute aurtengo azoka.

**Eusko Labeldun pintxoak** Eusko Label ziurtagiria duten pintxoeren erretoria ere prestatuko dute. Herrikoentzat doan izango da, eta kanpotarrek, azokan zer edo zer erosten badute, deskontuak eskuratuko dituzte.

## Liburutegiko ehunka liburu euro batean lortzeko aukera domekan

**OTXANDIO** J. Derteano

Liburutegiko ehunka liburugaz udalak liburu azoka antolatuko du domekarako, 12:30etik 14:30era, herriko plazan. Liburu guztiak euro baten truke egongo dira eskuragarri. Azokan batzen duten dirua liburutegian inbertitzeko izango dela jakinarazi dute.

Liburu azokan batzen den dirua liburutegian inbertituko dutela azaldu dute udal ordezkariak

Bestalde, gaur, 18:00etan, Xabier Olaso idazle otxandiarrak hurrei zuzendutako poema irakurraldia egingo du udaletxeko udalbatzar aretoan. Bestetik, zapatuan, 19:00etan, bertso saio musikatua eskainiko dute Uxue Alberdi, Nerea Elustondo, Oihana Bartra eta Miren Amuriza bertsolariak, eta Garikotz Otañendi eta Ixak Arruti musikariek Mainondoko gimnasioan.

## Trikitilari Gazteen Txapelketa, sanandresak amaitzeko

**ZALDIBAR** Itsaso Esteban

Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketaren finala jokatu dute, domekan, Zaldibarren. Neguko San Andres jaietako egitarauaren barruan jasota dago hitzordua: domekan, 17:30ean, Olazar pilotalekuan izango da emanaldia.

Txapelketaren XXIII. edizioa da aurtengoa, eta Azkoitiko eta Aramaioko kanporaketetan puntu gehien batu zituzten zortzi bikoteek joko dute finalean. 1995. eta 2001. urteen artean jaiotako soinulariek eta 95etik aurrera jaiotako panderojoleek hartu dute txapelketan parte, eta finalean Bizkaiko trikitia, porrusalda, Jose Mari Iriondoren *Garasolo* fandangoa eta arin-arina joko dituzte. Bestalde, ohi bezala, Zaldibarko kaleak ere girotuko dituzte parte-hartzaileek domekan bertan, 11:00etan.

Neguko sanandresak trikitilarien finalagaz amaituko dituzte, baina gaurko, biharko eta domeka goizerako ere hainbat ekintza antolatu dituzte Jai Batzordeak eta gaztetxeak.

**katerin ardoak**  
**inaki uribe**  
**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

**saltsan.com**

**SERRATU, S.L**

GALDARAGINTZA  
ETA ITXIERAK

URTEURRENA 25 ANIVERSARIO 1989 2014

gure bezeroen zerbitzura

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia  
Tel.: 946 201 837 - Faxa: 946 818 635 - serratu@serratu.com

## Zubiaurretarren ondarearen ale batzuk erosiko ditu udalak

### **GARAI** M.O.

Garain, XIX. mendean, Zubiaurretarren familiak artista ugari eman zituen. Valentín aita musikari famatua izan zen, Pilar alaba Errepublikako sasoiko intelektuala esanguratsua, eta Ramón eta Valentín semeak margolariak. Ondorioz, euren landutako artelanak makina bat izan ziren. Guzti hori ondare kulturala da, baina Garain herriagaz lotura daukan ondare bat ere bai. Adibidez, anaia margolarien hainbat koadro eta argazki egin zituzten Garaira egindako bisitetan; herriko inguruak eta jendea agertzen dira lan horietan.

### **Enkanteetan**

Ondare hori osatzen duten ale batzuk erosiko ditu udalak. Lantzean behin egiten diren enkanteetan parte hartu gura dute, eta irteten diren margolan eta partiturak erosi. Aurten 3.000 euro erabiliko ditu udalak horretarako, eta hurrengo urteetan ere ekimenagaz jarraitzeko asmoa dauka.



Durango, manifestazioaren amaiera, Andra Marian.

## Emakumeen kontrako indarkeriaren aurka

Martitzenean hainbat mobilizazio egin zituzten

**DURANGALDEA** M. Onaindia Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna izan zen martitzenekoa, azaroak 25. Mugimendu feministak eta erakundeek deituta, hainbat mobilizazio egin ziren herririk herri, eta emakumeen aurkako erasoak amaitzea exijitu zuten. Durango, esaterako, 110 bat lagun batu ziren Plataforma Feministak deitutako manifestazioan, eta autodefentsa feministarako deia egin zuten:

“Beti bezain garrantzitsua da gure borroka, inoiz baino beharrezkoagoa”. Udalaren arabera, irailera arteko datuetan, aurten 30 emakumek salatu dute indarkeria sexista sufritu izana.

Abadiñon, Berrizen, Eorrian eta Zaldibarren ere egin zituzten mobilizazioak arratsaldean. Mallabian, 200 lagun batu ziren eguerdiko protestan. Herri batzuetan, asteburu honetarako ere prestatu dituzte ekintzak.

## Gailurra baino, bidea eta konpainia garrantzitsuago

Bizidun elkartek Mikeldi ibilbidea osatu dute

### **DURANGALDEA** M.O.

Bizidun nagusien elkartek GR-299 Mikeldi ibilbidea amaitu zuten joan zen barikuan, eta ibilbide osoa osatu duten lau lagun omendu dituzte: Jabier Ugalde (73 urte), Carmen Kortazar (70 urte), Angel Elorriaga (75 urte) eta Joseba Gorostiza (74 urte).

Bizidunekoek ustez, GR-229 Mikeldi ibilbideak kultura eta kirola bateratzen ditu, eta esfortzu handirik barik egin ahal da. Durangaldez eta bere paisaiez

gozatzeko aukera ona dela uste dute, gainera. Euren ustez, garrantzitsuagoa da bidea konpainia onean egitea gailurrera ailegatzea baino.

### **Berbaldiak**

Zahartzaro aktiboa sustatzen duen Bizidun elkarteak berbaldiak antolatu ditu. Abenduaren 3an teknologia berrien inguruan jardungo dute, eta 10ean ezkontza eta herentzien inguruan. Behargintzan izango dira berbaldiak, 16:30ean.



Omenduak erakundeetako ordezkariekin.

# irakurri4

aldiz ARINAGO  
DURANGO

**prakagorri.es**  
944 91 57 63

## GABONETAKO IKASTARO TRINKOAK

**Ulermen jasoko irakurketa azkarra..... 9:00 - 10:30**  
**Ikas-metodo eraginkorrak..... 11:00 - 12:30**

**Egunak:**

22	23	24	25	26	27	28
29	30	31	1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11

**Izen-emate epea: abenduak 18ra arte**  
**Adinak:**  
 Irakurketa: 9 urtetik aurrera  
 Ikas-metodoak: 11 - 15 urte

Barrenkalea 20, Durango | prakagorri@prakagorri.es

## Eroskik lantegi berritua edukiko du, eta eskulan gutxiago beharko du

Eroskin, produktuen kargaren %70 modu automatikoan egingo dela esan dute



Kargudunak, Urkullu lehendakaria buru dela, Eroskin.

**ELORRIO** Markel Onaindia Eroskik lantegi logistiko berritua edukiko du. 40 milioi eurogaz, lantegia automatizatzen dabilta, eta, horrela, produktuen harrera, biltegiatzea eta prestaketa erraztuko dira. Prozesu horien %50 egongo da automatizatuta, hain zuzen ere. Gainera, produktuen kargaren %70 ere modu automatikoan egingo dela esan dute. Berrikuntzagaz, instalazioko ekoizpena %50 igo ahal dela baloratu dute. Bestalde, botilen logistika automatizatu duen lehenengo enpresa europarra dela esan dute. Iñigo Urkullu lehendakaria, Jose Luis Bilbao ahaldun nagusia eta Ana Otadui alkatea egon ziren inaugurazio ekitaldian.

Aldaketak eragin zuzena edukiko du beharginengan, one-rako eta txarrerako. Lana zenbat eta automatizatuago egon, gero eta eskulan gutxiago beharko da. Baina ez dago argi zelan gauzatuko den hori. *Eitb.eus* eta *Naiz.eusek* jaso dutenez, Alberto Madariaga Eroskiko operazio zuzendariak esan zuen aldi baterako langile gehienek kontratuak ez dituztela luzatuko automatizazio prozesua amaitzean -2015-2016-. 400 beharginetatik 80 bat dira gaur egun aldi baterakoak, enpresako bazkide ez direnak. ANBOTOk galdetzean, ostera, Eroskiko prentsa zerbitzuak bestelako datuak eman ditu. Bederatzi lagun bakarrik leudeke lana galtzeko egoeran: automatizaziorako hartutakoak eta bajak kubritzen daudenak.

Alde ona lan fisikoa murriztu egingo dela da -bakoitzak 8.000 kiloko karga zeukan egunero-. Horregatik, baldintzak hobetu-ko direla esan dute Eroskikoek.

### SEI HANKAKO MAHAIA

**IDOIA AGORRIA**

PSE



### Babes gabe

PPren gobernua indarkeria matxista alde batera uzten ari da. Ez dut soilik nik esaten, Genero-indarkeriaren Aurkako Gobernuaren Ordezkaritzak, Indarkeriaren Behatokiak eta Botere Judizialaren Kontseiluak berak jasotako datuak dira. Eta Estatuko aurrekontuek ere horrelaxe berresten dute: 2011n 30 milioi euro bideratu ziren genero-indarkeriari aurre egiteko. 2015ean, berriz, kontu-sailak 6,6 milioi euro gutxiago izango ditu. Eta milioi bat gutxiago bideratu da biktimei eta adingabekoei zuzendutako laguntza psikosozialeko programetarako.

Bitartean, salaketa jarrita zuten eta hil dituzten emakumeen kopuruak gorantz egiten jarraitzen du. Aurten, orain arte, %31,8 egin du gora, eta salaketa kendu duten emakumeen kopurua ere %45 handitu da. Arrazoiak argi eta garbi daude: aurrekontuko murrizketak, eta Gobernuak genero-indarkeriari aurre egiteko duen prestasun eta konpromiso eza. Aski izan da Rajoyren gobernu hiru urtez aritzea Genero Indarkeriaren Aurkako Legea letra hila izateko. 2011tik, atzera egin da izurri sozial honen aurkako borrokan, eta, hortaz, arazoa larriagotu egin da. Bestalde, EAJK irizpiderik gabe ezabatu zituen sozialisten bi ekimen: hezkuntza- eta kontzientziazio-programa bat, indarkeria matxistaren biktimak ikastetxeetara eramaten zituena beren bizipenak azaltzera. Eta leihatila bakarra, biktimei laguntza arina, zuzena eta espezializatua emateko, laguntza zuzena jasotzeko sailez sail noraez ibili behar izan gabe. Bi gobernuak alde batera utzi dituzte zegozkien eginkizunak, eta beren eredu sexual, sozial, ekonomiko eta politikoei eman diete lehentasuna, krisialdi ekonomikoa dagoenean indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak indartu behar direla jakin arren.

## Hamabost iurretar hasi dira Nagusilagun programan

### IURRETA A.U.

Astean birritan batu, eta ariketa fisikoak eta buruko ariketak egiten hasi dira 80 urtetik gora dituzten hamabost iurretar. Amankomunazgoaren Nagusilagun programaren bidez, psikomotrizitatea, buruko jarduna eta euren arteko harremanak lantzen dituzte saioetan, begirale baten laguntzagaz.

Jubilatuak elkartean batzen da Nagusilaguneko taldea, eta urrian hasi zituzten saioak. Talde-lanaren bidez, partaideen ongizatea hobetzen dela azaldu dute Amankomunazgotik. Momentu honetan hamabi emakume eta hiru gizon daude taldean. Elorrión, Abadiñón eta Zaldibarren ere badaude Nagusilaguneko taldeak. Iurretan 217 pertsonak dute 80 urte baino gehiago.

## Elkartasun merkaturako materiala batzen abenduaren 1ean hasiko dira

Iaz saldutakoagaz, Anderebidek 1.000 euro bideratu zituen JAEDera



Iaz egin zuten lehenengoz elkartasun merkaturakoa.

### IURRETA Amaia Ugalde

Jostailuak, bitxiak, liburuak eta egoera onean dagoen arropa batuko dute abenduaren 10era bitartean. Anderebidek bigarren urtez antolatuko du elkartasun merkaturakoa. Herritarrek eroandako materiala abenduaren 15etik

18ra salduko dute elkarteko kideek, eta salmentetako dirua JAEDera bideratuko dute.

Ibarretxe kultur etxean bigarren eskuko denda txiki bat eratuko dute horrela, Gabon ingururako. Iaz egin zuten lehenengoz, eta ekimenak bi helburu

dituela nabarmendu dute Anderebideko kideek: Iurretan beharra duten pertsonen opariak eta bestelakoak merke erosteko aukera ematea, eta, bide batez, JAEDen bitartez, larrialdi egoeran dauden familiei laguntzea.

Iaz 1.000 euro batu zituzten ekimenari esker, eta oso balorazio ona egin zuten: "Mugimendu handia egon zen, eta, jende nagusi askogaz batera, umeak ere etortzen ziren, euren nebarrebentzako eta gurasoentzako opariak erostera", kontatu dute elkarteko kideek.

Abenduaren 1etik 10era materiala jaso eta gero, abenduaren 15ean zabalduko dute elkartasun merkaturakoa, eta lau egunez egongo da zabalik, kultur etxean bertan, goizez eta arratsaldez: 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era.

**MARC BADAL**  
Vidas a la intemperie.  
Notas preliminares  
sobre el campesinado

Liburuaren aurkezpena  
Ostegunean, abenduak 4,  
arratsaldeko 19:00etan

**hitz**  
liburudenda

artekalea, 14 durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

**A. Urreta**  
podólogo

**Dinara Urreta Jainaga**

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea  
48200 · DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406



**Fausto Melchor**, euskaltegiko ikaslea**EUSKARAK  
365  
EGUN**

## “Etxean seme-alabekin erraza da euskaraz egitea; kalean lotsa gehiago ematen dit”

Abarrak euskaltegiko ikasleek galdetegia prestatu dute euskaltegian urteak daroazan Melchorrentzat



**> EUSKARA** Abarrak AEK /A.U. Euskara ikastea urte askoko proiektua izaten da pertsona askorentzat. Eskoletara joan, gramatika ikasi, ahozko komunikazioan lotsak kendu... Bide hori daukate aurretik Durango-

ko Abarrak euskaltegian lehen pausoak ematen dabiltzan ikasleek. Galdetegia prestatu dute, Fausto Melchor ikasle beterranoak erantzuteko. Melchorrek fin-fin erantzun ditu galderak.

**Zenbat denbora daroazu euskara ikasten?**  
Hasi, hasi, aspaldi hasi nintzen, baina azken bospasei urteetan ibili naiz jarraian.

**Eskolaz kanpo zenbat ordu eskaintzen dizkiozu euskarari?**  
Egunero-egunero irratia entzuten dut, eta euskarazko telebista ere ikusten dut batzuetan: ETB, Hamaika telebista... Egunkarian ere berri batzuk euskaraz

irakurtzen ditut. ANBOTO astero-astero, *Aizu!* hilabete behin... Kalean hainbatekin hitz egiten dut euskaraz, baina gehiago egin beharko nuke.

**Zer metodo erabiltzen duzu euskara ikasteko?**  
AEK-ko Abarrak euskaltegian nago, eta kalean batzuetan mintzapraktika egiten dut.

**Zure ingurukoekin edo lagunekin kalean, etxean... euskaraz hitz egiten duzu? Bizkaiera, batua ala biak erabiltzen dituzu?**  
Etxean, seme-alabekin-eta, errazagoa da euskaraz egitea niretzat; kalean lotsa handiagoa ematen dit. Ohitura falta ere

nabari dut. Egiten dudanean nahastean egiten dut, bizkaieraz eta batuaz. Gustatuko litzaidake bizkaieraz gehiago egitea, baina...

**Hitz egitean euskaraz pentsatzen duzu?**  
Normalean gaztelaniaz pentsatzen dut, eta gero itzuli egiten dut, baina batzuetan konturatu gabe ateratzen zait euskaraz.

**Zer gomendio edo aholku ematen diguzu euskara gehiago ikasteko?**  
Pazientzia, konstantzia, baina, batez ere, gogoia izatea. Ondo pasatzea ere inportantea da euskara ikasterakoan.

“**Gaztelaniaz pentsatu, eta gero itzuli egiten dut, baina batzuetan konturatu gabe ateratzen zait euskaraz**”

**URTEAN  
365 EGUNEZ  
EUSKARAZ  
BIZITZEKO  
LANEAN****EUSKARAK  
365  
EGUN**euskaltzaleon auzotik  
euskararen herrira

www.365egun.eu

**Jarri kartela leku ikusgarri batean.****Atera argazkia eta bidali  
anboto@anboto.org  
helbidera.****Iritzia**

### Sapuetxe bizirik!

Borrokak legezatzeko joera dagoen egun hauetan, gure proiektuak era asanbleario eta inolako botereren eskutik joan gabe era autogestionatuan garatzen jarraitzen dugu.

Hauek ziren duela hogeitau urte baino gehiago sortu zen Durangoko gazte asanbladaren oinarriak, eta oinarri hoietan daude Sapuetxeren sustraiak.

Gaztetxea gazte barik etxe huts bat baino ez denez, eta Sapuetxen gazteek erreleboa hartzeko asmorik ez dutela dirudienez, argi dugu Sapuetxek gaztetxe izaera galdu duela. Baina belaunaldien arteko errelebo hori eman ez den arren, hainbat adinetako pertsonen espazio aske hau erabiltzen jarraitzeko prest gaude. Beraz, gaztetxea ez bada, nola deituko dugu hemendik aurrera? Bakoitzak asmatu dezala Sapuetxeri ipini nahi dion abizena, baina abizenak abizen, garrantzitsuena da proiektu,

amets eta ilusio asko garatzeko espazio aske izaten jarraitzen duela Sapuetxek. Hau da izana, eta hori finkatzeko hartu dezagun orri zuri bat, eta has gaitezen Sapuetxe berria marrazten.

Ezin ditugu ahaztu Sapuetxen hamabost urte hauetan egin diren ekintza guztiak, eta bertan garatu diren maitasun, adiskidetasun eta elkartasun harremanak.

Urte guzti hauetan esperientzia desberdinetatik ikasten saiatu gara, gure buruak heziz eta pertsona bezala haziz.

Sapuetxe herriarena eta herriarentzat dela nabarmendu nahi dugu, eta espazio honetan parte hartzera gonbidatzen diogu proiektu honetan sinesten duenari, astearteetan 17:30ean egiten dugun asanbladara etorriz.

Amesten jarraitzen dugulako,  
Sapuetxe aurrera!

**Sapuetxeko asanblada** (Irene Uribebarrea, Jon Mikel Astobiza, Ane Garitaonandia, Jone Unzalu, Gorka Vidaurrazaga, Iratxe Garcia, Iñaki Bilbao, Iker Izurieta, Gorka Zuazua, Irantzu Zuazua, Luis Calvo, Ane Larrañaga eta Izadi Larrañaga)

**astekaria@anboto.org**  
astearte 17:00ak arteko epea

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea  
• Nortasun Agiriaren zenbakia**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**  
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## ► Berbaz

Ander Berrojalbiz | Khantoria taldeko kidea eta musika eskolako irakaslea | Durango, 1983

# “Gorularien kanta tradiziorea pasatzean Zubiaurreren autoretza ahaztu egin zuten”

Berrojalbizek Musikaren historia irakasten du; ‘Gorulariak’ erakusketa antolatu du Arte eta Historia Museoan



► **BERBAZ** Jone Guenetxea Valentín Zubiaurre errege kaperako konpositorea (Garai, 1837) izan zen, eta berak sortu zuen ‘Gorularien kanta’. Tradizioari eta dantzei lotutako abestia garaitarraren obra interpretatuena izatera heldu da. Ander Berrojalbiz Khantoria taldeko kideak abesti horren eta bere egilearen inguruko erakusketa inauguratu du Durangoko Museoan.

**Zerk bultzatu zaitu erakusketa antolatzeraz?**

Valentín María de Zubiaurre Urionabarrenechea 1914ko urtarilaren 14an hil zen, beraz, bere heriotzaren mendeurrena bete da aurtan. Antzinako musika lantzen duen Khantoria taldearen ekitaldiak beti daude ikerketagaz eta zabalkundeagaz lotuta.

Bere omenez zer edo zer egitea pentsatu genuen. Orain arte, Durangoko erakundeek ez dute asko egin bertako musikariak gogoratzeke. Durangoko Arte eta Historia Museoak, oster, musikari horiek gogora ekartzeko asmoa adierazi du. Joan zen urtean Durangoko txistulari baten koaderno bateko musika berreskuratua genuen, museoak lagunduta. Zubiaurreri buruzko erakusketa hau ere bultzatu du.

**1886ko Euskal Jaia zergatik izan zen hain garrantzitsua?**

Izatez, 1885ean zen ospatzekoa, baina kolera izurrite baten beldurrez, atzeratu egin zuten 1886ra. Urte horretako Valentín Zubiaurreren parte-hartzearen dokumentuak jaso ditugu erakusketan. Jai horretarako garaitarrak bi gauza konposatu

zitu: himno bat eta *Gorularien kanta*.

**Lan hori enkarguz egin zuen.**

1885ean Jose María de Ampuero Durangoko alkateak eskatu zion Zubiaurreri Durangoko Euskal Jaian musika arloaz arduratu zedin. Pedro Pablo Astarloaren omenezko himno bat sortzeko eskatu zion. Horrela, Felipe de Arresek konposatutako letra bati musika jarri zion. Orain Pinondon dagoen Astarloaren eskultura jaialdi horretan, Ezkurdin, inauguratu zuten. Zubiaurrek Ampueroi eskuz idatzitako erantzuna erakusketan dago ikusgai. Dokumentu horren bidez baiezkoa eman zion.

**Himnoaren eskuizkribu originala duzue erakusketan.**

Bai, Garain sinatua dago,

1885ean. Ondoren, 1886an interpretatu zen. 2001ean Jesús Egiguren konpositore durangarrak Gerediagagaz eta museoagaz batera edizio modernoa kaleratu zuen.

**Himnoa eskatu zioten, baina ‘Gorularien kanta’ ere sortu zuen Euskal Jaian.**

Inork ez daki zergatik sortu zuen abesti hori, enkarguz edo bere ekimenez. *Peru Abarkaren* bosgarren autoan agertzen den kanta hartu zuen (“Kantadu dagiguzan / linuaren penak / ...”), eta musika jarri zion. 1802an idatzitako liburua den arren, ez zen argitaratu 1881era arte. Beraz, suposatzen dugu, bost urte lehenago Durangon kaleratuta, liburu arrakastatsua izan zela eta horregatik aukeratu zuela. Gorularien prozesu guztia kontatzen du letrak, eta Zubiaurrek musikatu egin zuen. 1886ko gazteen konpartsen argazkia dugu erakusketan, eta gazte horiek lehenengoz interpretatu zuten obra hau Euskal Jaian. *Estanpa* izenez ezagutzen da. Lihoaren lanaren antzerkia egiten zuten letra abesten zuten bitartean. Ramón eta Basilia Iñurrieta ziren konpartsen arduradunak.

**Dantzari onak zirela dirudi, saria eskuratu zuten eta.**

Durangoko konpartsek txapelketa irabazi zuten urte hartako Euskal Jaian, eta irabazleei ematen zitzaien domina eta kutxatila ditugu erakusketan.

**Erakusketan bildutako dokumentuen artean, zein nabarmenduko zenuke?**

1928ko Euskal Jaian koreografiak jasotzen dituen liburu bat, Domingo Ziluaga apaizak Iñaki Irigoieni emana. Durangoko Kaiera San Frantzisko komentuko mojentzat egina dela ematen du. Dantzari-dantza, arku dantza, domingiloa eta gorulariak agertzen dira dokumentu honetan. Izan liteke Ramon Iñurrietak idatzitakoa izatea, eta komentuan utzi izana, Soledad Olalde haren ilobak esandakoaren arabera. Grafikoek mutilen eta nesken arteko bereizketa egiten duten arren, testuek parte-hartze femeninoari egiten diote erreferentzia.

**Zein da erakusketaren tesia?**

Zubiaurre Espainiako errege kaperako maisu zuzendari izan zen, karguz, estatuan zegoen konpositorerik garrantzitsuenak. Horrela, eleiza-musika piloa konposatu zuen, baita hiru opera eta formato handiko hainbat obra profano ere. Hala ere, gaur egunera arte gehien interpretatu den bere obra *Gorularien kanta* izan da, segur aski herriko tradizio eta dantzei lotuta jaio zelako. Izan ere, 1886an berreskuratutako arku-dantzagaz eta domingilo dantzagaz batera aurkeztu zen. Gerora, dantza hauekin batera bizi izan da.

**Durangaldeko dantza horiek zabalkunde handia izan zuten?**

Dantza horiek zelan egiten ziren azaltzen zuten hainbat publikazioen bidez, tartean *Euzko-Gastelijarena*, Euskal Herriko beste herri batzuetara ere zabalduta ziren. Horrela mantendu zen *Estanpa*: Durangoko Falange Espainola taldeko Sección Femeninako dantza taldeak ere dantzatzen zituen.

**Beranduago, desagertu egin zen.**

1960ko hamarkadan ez zen tradizioa mantendu. 1973an Iñaki Irigoienek eskutik berreskuratuta zuten *Gorularien dantza*, Donostian, Iurretako dantzariak. 1976an, San Migel plazan interpretatu zuten berritua ere, eta, ordutik hona, urtero dantzatzen dute jaietan Iurretako dantzariak.

**Zubiaurreren bustoak presentzia handia du erakusketan.**

Manuel Iglesias Recio sortutakoa da. María Rosa Ortiz-Coronado de Elejostek Durangoko Arte eta Historia Museoari egin zion busto horren donazioa.

**Gorularien abestiak moldaketa ugari izan ditu.**

Kanta hori tradiziorea pasatu zenean autoretza ahaztu egin zen. Liburuetan ez da agertzen Zubiaurreren delakoa. Herrikoia zela suposatzen zenez, aldatu egin zuten. XIX. mendeko errekurtsio batzuk, abesteko agian oso deserosoak direnak, kendu egiten zituzten errekurtsio herrikoia gogoratuz. 1982an José Antonio Arana Martijak aldarrikatu zuen Zubiaurreren autoretza. Hala ere, 1992ko *Txistulari* aldizkarian autoretza Zubiaurreri aitortzen dioten arren, partitura horretan dagoen abestia ez da Zubiaurreren, herrikoia pasatu ostean gelditu den melodia agertzen da bertan.

**Andeka Gorrotxategi** | Opera kantaria | Abadiño, 1977

Lehior Elorriaga.

## “Opera zuzendari oso onak eduki ditut, eta eurengandik ere asko ikasi dudala uste dut”

Durangoko Andra Marian ariko da kantuan Gorrotxategi, bihar, 20:00etan

**> MUSIKA** Itsaso Esteban Mario Lerena pianistak lagunduta ariko zara Durangon. **Aspaldikoa duzue elkarlana?** Bilbon ezagutu genuen elkar; Coral del Ensanche abesbatzean bakarlari izan nintzen, eta bertako piano-jotzailea zen Mario. Urtetan ez dugu elkar ikusi, eta emanaldi berezia izango da Durangokoa. Izan ere, udako Abadiño elkartasun kontzertua kenduta, Durangaldean ez dut askotan kantatu izan.

**Zelakoa izango da emanaldia? Zer erreperitorio dakarzu?** Kanta napoliar batzuekin hasiko gara, eta opera frantziar eta italiarraren lau aria eskainiko ditugu: *El cid*, *Tosca*, *Carmen* eta *Andrea Chénier* operetako aria bana kantatuko dut.

**Zelakoak izaten dira opera lan baten prestaketak?** Zatika egiten ditugu; normalean, eszenaka. Behin eszena ikasita, zuzendariak ematen dizkigun jarraibideak izaten ditugu oinarri. Azken astean hasten gara orkestra eta guzti entsegu orokorrak egiten. Sei-zortzi ordu iraun dezake entsegu orokor batek.

**Badirudi egiteko modu oso zorrotzeko jarduna dela operarena. Horrela da?** Badauka egia parte bat horrek, bai: ordu asko sartu behar dira ikasten, eta diziplina handia behar da aurrera egiteko.

**Zelakoa da zure bizimodua? Atzerrian bizi zara, ezta?** Batetik bestera nabil, eta atzerrian bizi naiz normalean, bai.

Opera produkzioek hilabete inguru irauten dute, eta horren arabera moldatu behar izaten dit: hilabetez Madrilen, hilabetez Erroman, Sidney, Brasilen, edo Pekinen bizi naiz. Lanaren arabera bidaiatzen dut. Denbora librea daukadanean, beti saiatzen naiz Durangora etortzen.

**Abeslari profesionala izateko eta operan lan egiteko aukerarik ez dago hemen?** Nire kasuan, hemen nik nahi nuen guztia ez zidatela irakatsiko uste nuelako joan nintzen atzerrira. Beste esperientzia eta irakasle batzuen bila joan nintzen Madril, Marseilla, Paris edo Erromara. Musika eskoletan hemen ere irakasten da kantua, eta eskoletatik urtero abeslariak ateratzen dira, baina ez dago la-

nik denontzat. Bilbon badaude opera denboraldi bi, baina hortik aparte ez dago zirkuitu bat. Murgitu beharra dugu: lan eginez ikasten da mundu honek zelan funtzionatzen duen.

**Ahotsa berezkoa duzu. Baina zer da gehien landu duzuna?** Beste asko bezala, abestea ere landu egiten den gaitasun bat da. Denok daukagu ahotsa! Kirolean ere horrela da, esaterako; txikitatik orduak eta orduak korrika eman bagenitu, atletak izango ginatke, beharbada! Trebezia berezia izan dezakezu kantuan edo beste edozertan, baina teknika batzuk lantzen ez badituzu, ez duzu aurrera egingo.

**Interpretazioa ere bada opera. Zelan landu duzu arlo hori?** Horretan ere lan eginez ikasi dut gehien; zeure burua geroz eta hobeto ezagutzen duzu... Gainera, opera zuzendari oso onak eduki ditut, eta eurengandik ere asko ikasi dut.

**Zer erronka daukazu aurretik?** Salzburgon (Austria) datorren udan eskainiko dudana emanaldia oso inportantea da; opera

jaialdi oso garrantzitsua da hango, oso mediatikoa; zuzendari asko egoten da publikoan. Bate-tik, abeslari italiarraren papera egingo dut *El caballero de la rosa* operan. Oso rol laburra da, baina opera horretako kanta polit eta ezagunenetako bat interpretatuko dut. Bestetik, *Il trovatore* operako tenorraren ordezkoa ere izango naiz.

**Zure helburu profesionalak bete dituzula sentitzen duzu?** Beti dago zer hobetua eta ikasteko aukera. Nagoen lekuan pozik nago, baina hobetu egin gura dut beti. Geure buruarekiko pentsamendu kritikoa izatea oso garrantzitsua da, aurrera egiten jarraitzeko.


**Zelan hasi zinen kantuan?** Kriskitin dantza taldean nenbilen, eta bertako lagun batzuek proposatuta hasi nintzen kontserbatorioko abesbatzean. Gizonetako ahotsak behar zituzten, eta animatu egin nintzen. Gutxi-naka, mundu horretan sartzen joan nintzen. Espiral batean sartu, eta zaila da gero hortik ateratzea [barrez].

**Zure etxean kanturako tradizioirik badago?** Bai, nire etxean beti kantatu izan da; arreba Durangoko Orfeoian ibilitakoa da, esaterako. Baina ez dira bereziki operazaleak izan. Musika folklorikoa entzun da etxean gehiago.

**Jende askori arrotz zaio opera. Zergatik uste duzu dela hori?** Edozeri gustua hartzeko, jaki bati zein arte adierazpide bati, hainbat aldiz probatu behar dela entzun diot norbaiti, eta uste dut hori falta dugula, orokorrean. Bestalde, badirudi gaur egun dena izan behar dela momentukoa eta azkarra, eta arte klasikoak ez datoz ikuskera horregaz bat; denbora behar da musika mota honi gustua hartzeko, zaletasuna sortzeko.

**Katamalok Plateruena Kafe Antzokian emandako agur kontzertua zuzenean!**

Plateruenaren alde **Katamalok** egindako lana 8 €-an eskuragai ANBOTOan eta Plateruena Kafe Antzokian



...eta urte ASKOTARAKO!

## Luis Echechipia organistaren emanaldi berezia izango da gaur

Azalpenak emango ditu musikariak gaurko saioan

**> MUSIKA** Itsaso Esteban Arandoño elkarteak gonbidatuta, hainbat aldiz jo izan du Jose Luis Echechipia organistak Durangon. Xabier Arana Arandoño elkarteko kideak kontzertuaren aurkezpenean azpimarratu duenez, baina, "lasaiago" jardungo da oraingoan. Askotariko errepertorioa eskainiko du organistak, eta joko dituen kantuen inguruko zein organistaren jardunari buruzko azalpenak ere emango ditu. Organo

Abenduaren 19an eskainiko dute aurten organo kontzertuen azkenenengo emanaldia, Durangon

kontzertuen ziklo honetan ohikoa den bezala, elizako aldarean ipiniko duten pantailatik emango dituzte organistaren irudiak, jotzen dabilen bitartean.

### François Espinasse

Hamasei urte daramatza Durango Arandoño elkarteak organo kontzertuen ziklo hau antolatzen, eta maila altuko organistak gonbidatu izan dituzte antolatu dituzten 50 emanaldietan parte hartzera. Il-do horretan, abenduaren 19ko emanaldia ere azpimarratu du Xabier Aranak asteon egindako agerraldian. Izan ere, Parisko Saint Séverin elizako Versaillesko errege kaperako organista da abenduaren 19an, Durangon, joko duen François Espinasse.

## Dejabu taldearen 'Arrastoak', Arriolan

Elorrion eskainiko dute antzezlan, gaur, 22:00etan

### > ANTZERKIA

Azaroaren 1ean, Luhuson (Lapurdi) estreinatu zuten *Arrastoak* antzezlan eskainiko dute Dejabu panpin laborategia taldekoek gaur, 22:00etan, Elorrioko Arriola antzokian. Besteak beste, *Errautsak*, *Gure bide galduak* eta *Hamlet* antzezlanak taularatu dituen taldea da Dejabu. *Arrastoak* obra berrian Miren Alkalak, Urko Redondok, Iñigo Aranbarrik eta Ainara

Gurrutzagak dihardute aktore lanetan, eta antzezle horiek jardun dira lanaren zuzendari ere.

Bera ume txikia zela etxetik alde egin zuen amaren heriotzak Lur protagonistarengan zelan eragiten duen kontatzen du *Arrastoak* antzezlanak: "Galderaz galdera atzera egingo du Lurrek", dio obraren sinopsiak: "Intrigaz eta ezustez betetako bidaia bat" da Dejabu taldeak gaur Elorrion eskainiko duena.



### GEURE DURANGALDEA

JOSE MARTIN URRUTIA, 'TXOTXE'

Irakaslea



### Liliput

Euskadi literatura sariak banatu zituzten igandean. Han zegoen Bernardo Atxaga traje eta gorbatarekin, *Nevadako egunak* lanagatik lehen saria batzeko. Telebistaz irudiak ikusterakoan beste Bernardo bat etorri zitzaidan burura, orain 30 urtekoa. Oiartzungo sagardotegi batean elkartu ginen euskal kulturako hainbat eragile, tartean Atxaga bere ile kizkurrarekin, baina gorbata barik. Mahaian, sagardo eta intxaurren artean, gure indarra auzolana izan behar zela genion. Haize berria behar zuela euskal kulturak. Eta barre artean nondik putz egin eztaba-datzen gu. Atxagak haurrentzako antzerki obra bat idaztea eta guk antzeztea atera zen. Handik gutxira agertu zen obrarekin, eskuz idatzita koadrodun orrietan. Sinestezina sasoiotan. Gogoz hartu genuen gidoia, eta laster hartu zuen bizitza. Urte horien bueltan Kurutzia ikastolan hasi nintzen lanean, eta, sartu bezain pronto, antzerki tailerra jarri genuen martxan. Urte haietan oso testu gutxi zeuden gazteekin antzerkia egiteko, eta Atxagak egindakoa maileguan hartu nuen, ikasleekin antzezteko. Institutuko aretoan egiten genituen emanaldiak, eta egindakoa ikustera etortzen ziren Durangaldeko ikastetxe gehienak. Hartu-eman ezin hobea izaten zen, eta ikuskizuna gazteen arteko elkargune bihurtzen zen.

Egun ez da horrelakorik gertatzen. Gure ikastetxeetan isolatuta, nekez joaten gara besteenara. Ez dakit non galdu dugun elkarlanerako edo elkar ikusteko gogoia, baina berreskuratutako behar genuke. Badakizue aldrebes samarra naizela, baina, gure artean, nahiago gorbata gabeko Atxaga intxaur eta sagardo botilen artean, telebistako kameretik urrun. PD: *Liliput* da Bernardo Atxagaren testu hura.

### > KRONIKA > BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA, LEHEN FINALAURREKOA

## Saio orekatua eta ezusteko tristeak Durangalderako

Iratxe Ibarrak lortu du finalerako lehen txartela

### > AMAIA UGALDE

Txapelketetan, puntuazioaren zain egoteko unea heltzen denean, normalean, gutxi gorabehera bakoitzak bere faberittoa izaten du. Bertsolari batek ale oso onak bota dituelako, besteak barre-algara asko eragin dituelako... Bada, zapatuan, Etxebarrian, ez zen erraza izan kinielak egitea. Bertsolariak nahiko saio orekatua egin zuten; oreka desorekatuaz berba egin daiteke, beharbada. Egon ziren aleak, baina, orokorrean, bertsolariak ez zuten saio birit-birit egin.

Puntuazioa entzutean, ezusteko tristeak izan genuen Durangalderako: Miren Amuriza seigarren geratu zen, 464 puntugaz, eta Eneko Abasolo *Abarkas* laugarren, 469 puntugaz. Iratxe Ibarrak lortu zituen puntu gehien (475,5), eta zuzenean sailkatu da finalera. Saioaren isla da puntuetan egon zen alde txikia; Amurizak baino bederatzita puntu eta erdi gehiago lortu zituen Ibarrak.

Amuriza eta *Abarkas* ofizioetan nahiko lan erregularra egin eta gero heldu ziren kartzelako lanera. "Dimititu



egin duzu" gaiari Amurizak Gallardonoren paperetik kantatu zion; abortuaren lege proposamenak porrot egin eta gero dimititu zuen. Ausarta izan zen aukeraketa, baina jarrera horretan guztiz eroso ez zen ibili berriztarra. *Abarkas* alkaterearen paperetik ibili zen: "Ta dimititu egin behar dut / nago

arazoz lepo / ea atzetik datarren horrek / egin dezakeen hobeto" esanaz amaitu zuen.

Domekan Urdulizen jokatuko dute bigarren finalaurrekoa. Bertsolariak, hauek: Beñat Ugartetxea, Etxahun Lekue, Gorka Ostolaza, Julen Erezuma, Onintza Enbeita eta Xabat Gallettebeitia.

San Agustinalde, 12 - 48200 Durango  
sanagustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

**Sex on sex**  
Oihulari Klown  
Azaroaren 28an - 20:30ean

**SZENATOKIA**  
ARTE ESZENIKOEN GUNEA

**Szenatokia**  
DURANGOKO AZOKA  
Azaroaren 7an

San Agustín  
KULTUR  
GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**PLATERUENA**  
Durangoko Kafe Antzokia  
www.plateruena.net

<b>AZAROAK 28</b> 21:30ean DOAN	<b>AZAROAK 29</b> 22:30ean 5€/7€	<b>AZAROAK 30</b> 17:30ean 4€
<b>DURANG(H)OTS</b> JAM SESSION MUSIKA KONZERTUA	<b>KASERNARAT</b> + Physis Versus Nomos AZOKA 2014	<b>POXXPOLO TA</b> KONPAINIA HAURRENTZAKO PAILAZOAK

**EGUNEKO MENUA**  
ASTELEHENETIK  
LARUNBATERA

Landako etorbidea, 4 A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

# EDERTASUN GIDA



**Amaia Salazar. Nukleo.**

## Hipster estiloa dago modan

Nukleo ile apaindegiko Amaia Salazarrek azaldu du mutilen artean moda markatua dagoela, gaur egun hipster estiloa delako gehien erabiltzen dena.

### Zer estilo dago modan sasoi honetan?

Batez ere gizonen artean daukagu orain moda markatua: azkenean heldu da! Hipster estiloa dago modan, ile eta bizar luzeak eroatea eskatzen duena. Ilea tupe eran eroaten da. Bizarra, ostera, patillak eta beheko alde motz ebakita, eta gainerakoa luze. Baina guk, normalean, laburrago ipintzen dugu, bezeroak oso ausartak izan ezean. Gainera, erosoagoa ere bada.

### Bestalde, zer egin genezake ilea zaintzeko?

Azkenaldian, ilea gero eta txarrago tratatzen dela ikusi dugu ile apaindegian. Batzuetan gauza merkeak garesti irten ahal dira! Etxeko tindagaiengatik edo plantxengatik izan ahal da, eta jendeak ez duelako dirua horretan gastatu gura ere bai. Guk tratamendu bi erabiltzen ditugu. Botoxak ilearen azkeneko kapa osatzen du, eta bolumen handiagoa ematen dio ileari. Plasmak, ostera, ilearen barneko kapa osatzen du.



## ILE APAINDEGIAK



## ESTETIKA ZENTROAK



## DIETETIKA eta NUTRIZIOA



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

# Nola prestatzen dira Durangoko merkatariak azokara begira?



Produkzioa bikoiztu behar izaten dute batzuek, normalean baino bost bider gehiago saltzen dute beste batzuek, azoka osteko egunetan ere salmentak izaten dituzte tarteka... Durangoko Azokara datozen 100.000 bisitariak lan asko ematen diete Durangoko merkatariari. Lanaldia luzatu egin behar izaten dute izaten den eskariari erantzun ahal izateko. Dena dela, guztiek azpimarratzen dute ahaleginak merezi duela.



**Elvira Ortega**

Kurutziaga okindegia

**Kurutziaga okindegiak bikoiztu egiten du generoa azoka egunetarako. Dendaren ordutegia ere handitu egiten du, goiz eta arratsalde, egun guztietan. Bereziki gazte jendea dela euren bezerorik fidelena azpimarratzen dute.**

**Durangoko Azokara begira zerbait berezia egiten duzue? Bereziki opilak egiten ditugu gehiago. Bikoiztu egiten dugu produkzioa.**

## “Gure bezeroa gazte jendea da”

Napolitanak, donutsak, enpanadak... Txorizo ogitartekoak, txoripanak, esaterako, egun horretan bakarrik egiten ditugu. Dena dela, denetarik saltzen da asko. Batez ere gazteak datozen egunean. Aurten ere badago egun hori?

**Bai, abenduaren 5ean da Ikasle eguna.**

Guretzat egun hori da jendetsuena. Egia da ez dela hasierako urteetan bestekoa. Krisia igarri da hor ere. Baina gazteek opilak gogotsu erosten dituzte. Gure bezeroa gazte jendea da. Gero, beste faktore garrantzitsu bat eguraldiarena da. Horrek ere eragin handia izaten du salmentetan.

**Okindegiko ordutegia moldatzen duzue Durangoko Azoka dela-eta?**

Bai, jakina. Goizeko 07:00etatik gaueko 21:00etara egongo gara zabalik. Zapatu eta domeketan urteko beste sasoieta itxita egoten gara. Baina azoka egunetan asteburuan ere goiz eta arratsalde zabalitzen dugu.

**Durangoko Azoka esanda, zer dator kizu burura?**

Diru kutxa betetzeko egunak.



**Irune Ramirez**

Qukoa arropa denda

**Azoka egunetan bakarrik ez, ostean ere salmentetan igarri egiten dute Qukoan kulturaren plazaren itzala. Durangoko merkatari gehiago animatuko lituzke jai egun horietan zabalzera, bisitariak erakartzeko beste aitzakia bat izango litzatekeelakoan.**

**Durangoko Azokarako zelan prestatzen duzu denda? Lan txandak handitu egiten ditugu, eta eskaparatea ere aldatu egiten dugu.**

## “Azokaren inertziak bi aste irauten ditu”

**Zergaitik?**

Azokara datorren publikora egokitzeko. Guk bi erakusleho ditugu, eta azoka egunetan estilo informalagoa aurreko erakuslehoan jartzen dugu, halakoa delako publikoa ere.

**Eta ordutegia nola moldatzen duzue? Goizeko 10:00etatik 20:00etara zabalitzen dugu, eguerdietan itxi barik. Standetan lanean dabilen jendea etortzen delako bisitan.**

**Bezero fidelak dituzue?**

Bai, urtero datozenak. Eta gero bitxia da azokaren inertzia. Bi aste irauten du. Azoka amaituta, erakuslehoan ikusi zutena erostera etortzen dira bikote askoren mutilak.

**Merezi du orduan azokan lan egiteak. Bai, zalantza barik. Beste denda askok aukera hau nola ez duten aprobetxatzen pentsatzen dut batzuetan. Azokara jende mota asko dator, eta horietako askok gustura paseatzen dute Durangotik, eta dendak zabalik egonez gero, buelta hori luzatzeko aitzakiak ematen gabiltza. Hori guztia ondo dator kigu.**

**Mikel Galvan**

Centro Palentinoko tabernaria

## “Bost asteak lau egunetan behar dugu”



**Bost asterako jatekoak eta edatekoak erosiko dituzte Centro Palentinon, hori delako azokako lau egunetan saltzen dutena. Erritmo bizia izaten dute, batez ere sukaldean, salda bero eta ogitartekoen artean. Merezi duten lan askoko egunak direla aitortu dute, baina.**

**Zelan prestatzen zarete azokara begira?**

Biltegia jeneroz betetzen. Urtean bost asterako behar dugun jeneroa lau egunetan behar dugu. Hortik atera kontuak.

**Zer esaterako?**

Salda beroa asko saltzen dugu. Gero ogitartekoak, solomoa, tortillak... Zoratzekoak izaten dira azoka egunak.

**Ordutegia aldatu egin behar izaten duzue?**

Goizago zabaldu eta beranduago zarratzen dugu. Goizeko 09:00 inguru hasten gara armosuekin, eta, gero, batzuetan goizaldera arte egoten gara. Lan askoko egunak dira, baina merezi du.

**Zelako jendea sartzen da? Euskal intelektualen elkargune zaretela esan izan da.**

Hori aipatu ziguten iaz egin zizkiguten elkarrizketetan. Darabilgun lan erritmoagaz batzuetan ez gara konturatzen nor sartzen den.

 **Kirola****Gorka Bizkarra** | Triatloilaria | Mañaria, 1985

“

*Orain dela hamar urte ni bakarrik joaten nintzen korrika Mañaritik Durangorako espaloitik”*



## “Triatloia nire bizimodua da, horretarako bizi naiz”

Gorka Bizkarra triatloilari mañariarrak aurtengo denboraldian hamahiru bider zapaldu du podiuma, eta hirutan garaipena eskuratu du gainera

**> TRIATLOIA** Markel Onaindia Santanderko triatloi taldean dabil Gorka Bizkarra mañariarra, eta aurtengo denboraldi bikaina osatu du. Mailaz igo da taldea, eta berak hamahiru bider zapaldu du podiuma. Triatloia, bere bizitzeko modu hori, entrenatzaile pertsonal eta igeriketa irakasle gisa dituen lanekin bateratzen du. Egiten duen horretan gustura eta pozik dabilela igartzen zaio.

**Hamahiru podium egin dituzu aurtengoan, eta horietatik hiru garaipenak izan dira. Balantze ona, ezta?**

Bai. Orain arte, 2008an hasi nintzenetik, egin dudako denboraldi onena izan da. Ekainean oso indartsu egon nintzen, eta asteberu berean lasterketa bi irabazi nintuen, Aritzalekun eta Suancesen (Kantabria, Espainia). Ironmana prestatzen nentzen, eta lasterketa oso onak irten zitzaizkidan.

**Zelan ironmanean?**

Nizako (Frantzia) ironmanean egon nintzen. Nire intentzioa Hawaikora sailkatzea zen, Munduko Txapelketara. Baina ezin izan nuen; oso partzial ona egin nuen igerian eta bizikletan, bai

na korrika ez. Aurreko asteburuetan lar lehiatu nintzen, eta prestaketa aldatu egin behar da. Ez zen lasterketa txarra izan, hamar ordu eta hamaika minutuan bete nuen, baina azkenean ez zen irten nik nahi nuen.

**Azkenaldian krosetan ere ibili zara: Bilboko Herri Krosetan, adibidez.**

Irailan amaitu genuen denboraldia. Santanderko taldeagaz Promozio Klubean Liga irabazi genuen, eta Bigarren Mailara igo ginen. Sei astez atsedean hartu nuen, eta dagoeneko hurrengo denboraldiari begira entrenatzen hasi naiz. Bilbon zortzigarren egin nuen 34 minutugaz, eta azaroa izateko ondo dago.

**Zelan sortu zitzaizun Santanderrera joateko aukera?**

Triatloian 2008an hasi nintzen, Abadiñon, eta 2012an Saltoki talde nafarrak fitxatu ninduen. Oso talde ona zen, baina Mugarra etortzea erabaki nuen iaz, Durangokoa zelako eta kuadrilla giroa zeukalako. Gustura egon nintzen, baina triatloia oso garestia da, eta inskripzioak gero eta garestiagoak. Castro-Urdialesen oso lasterketa ona egin nuen,

“

*Orain arte, 2008an hasi nintzenetik, egin dudako denboraldi onena izan da”*

seigarren sartu nintzen, eta Santanderko taldeko presidentek euren taldera batzeko gonbidapena egin zidan. Ikusi nuen ez zela goi mailako taldea, baina bai gastuak ordaintzen dituen: inskripzioak eta bidaiak ordaintzen dizkigute. Oso gustura egon naiz aurtengoan, eta datorren urtean ere geratuko naiz.

**Eta zelan ikusten duzu igoera?**

Bigarren Mailara igo gara. Espainian, hamabost talde daude Lehen Mailan, beste hamabost Bigarren Mailan, gero Promozio Klubean, eta ostean, gainerako talde guztiak. Presidentek eta esan didatenez, helburua Bigarren Mailan mantentzea izango da. Lasterketa batzuk nahitaez egin beharrekoak dira puntuak

lortzeari begira, eta horiek ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara.

**Zer duzu nahiago, triatloia, duatloia edo kroseta?**

Triatloian gusturen. Orain, azaro-abendu partean, korrika egiten dut, forma hartzen joateko. Martxo aldera duatloiak egiten ditut, eta apirilean, eguzkia irteetan, triatloiekin hasten naiz. Triatloitik, gehienbat, bizikleta gustatzen zait.

**Zerk erakartzen zaitu triatloitik?**

Lasterketako giroak, lagunak egiteak, dagoen lehiak... Nire bizimodua da, horretarako bizi naiz.

**Eta zure ustez, zergatik egin du gora kirol horrek?**

Ez dakit, beharbada, moda kontua izango da. Orain dela hamar urte ni bakarrik joaten nintzen korrika Mañaritik Durangorako espaloitik. Orain, edozein orduan dago jendea. Akaso krisiak ere lagundu du; jendeak bizitza egiteko beste modu bat topatu du kirolean. Gero, entrenatzeko erraza da. Hiru kirol dira, eta ez da hain aspergarria. Egunero aldatu dezakezu; egun batean korrika, beste batean bizikletan, eta hurrengoan igeri egin ahal duzu.

**Entrenatzaile pertsonala eta igeriketa irakaslea ere bazara. Afizioa lanbide bihurtu duzu.**

Txikitatik gustatu izan zait planifikazioa. Ibaizabal ikastolan batxilergoa egin nuenean, ni-

re helburua Gorputz eta Kirol Hezkuntza ikasketak egitea zen, baina ez neukan nota nahikorik. Erdi mailako ziklo bi egin nintuen: mekanizatua eta administratua. Baina bizi osoa prentsa batean lan egitea oso gogorra zela konturatu nintzen, eta kirol arloko ziklo bat ikasi nuen. Gero, beste titulu batzuk ateratu ditut: nutrizioa, entrenamendu pertsonalizatua –hirugarren graduarekin nago, edozein entrenatze moduan–, igeriketako... Iaz autonomo egitea eta nire negozioa martxan jartzea erabaki nuen; izan ere, jende nahikoren entrenamenduak erosten hasi nintzen. Hamar hil daroadaz, eta ondo dago. Helbide elektronikoz asteroko entrenamenduak bidaltzen ditut, eta WhatsApp bidez zalantzak argitzen ditut. Bestalde, arratsaldetan Tabirako klubeko umeekin egiteko zortea daukat. Oso ondo pasatzen dut, barre asko egiten dugu, eta zarata apur bat ere bai [barrez]. Ea jarraitzen dugun!

**Etorkizunerako erronkarik?**

Embrunmana. Alpeetan egiten den ironman gogor bat da, antzeko distantziekin: lau kilometro igeri, 188 bizikletan eta 42 korrika. Urtero abuztuaren 15ean egiten da, eta horixe prestatu gura dut. Izoard mendatea igotzen da, Tourrean igotzen den hori. Alpe D’Huezeko proban ere parte hartuko dut, Alpeak ikusi, Tourra ere pasatzen da... Beraz, datorren urteko oporrak programatuta dauzkate. Disfrutatzea da nire helburua.

# Igor Azpiri Olazar txapelketako laugarren finalerdiaren bila, gaur

Imazegaz bikotea osatuta, Zaldibarko txapelketako final laurdenak jokatuko ditu



Multzo burua izan denez, gaurkoa txapelketako lehenengo partidua izango du Igor Azpirik.

**> PILOTA** Joseba Derteano Igor Azpiri pilotari elorriarrak Zaldibarko Olazar Pilota Txapelketako final laurdenak jokatuko ditu gaur, 21:30ean hasiko den jaialdian; Ander Imaz eta biek, Aitzol Dorronsoro eta Migel Pérez Arabako bikotea izango dute parean. Aurretik, Bakaikoa eta Ugalde lau t'erdian neurtuko

dira; horiek ere finalerdiatara sailkatzeko lehia jokatuko dute.

Bere ibilbidean Azpiri hiru bider heldu da Olazarreko finalerdiatara, iaz azkenengoz, baina beti finalaren atarian geratu da. Aurten finalerdiatara laugarrenez sailkatu, mugarri hori apurtu, eta finalean txapelaren borrokan aritzea du helburu.

Erronka zaila izango da hainbat arrazoiengatik. Alde batek, lehenengoz osatuko du bikotea Ander Imazegaz. Aurretik sekula elkarrekin aritu gabeak dira. Beraz, ikusi egin beharko da elkar zelan ulertzen duten kantxan. Bestetik, gaurkoa txapelketako lehenengo partidua izango du elorriarrak, aurten

multzo burua izan delako: "Multzo buru izateak final laurdenetara zuzenean sailkatzea dakar, baina txapelketari neurria hartzea gaitzagoa da, zelanbait esanda, hotzagoa da", adierazi du Azpirik.

Aurrez aurre izango duten bikotea maila handikoa dela uste du: "Pérez gaur egun afizionatu mailako pilotari onenetakoa da, eta Dorronsoro abila da errematean". Bata jotzailea da, eta bes-

Ander Imaz izango du atzelari, eta beragaz jokatzen duen lehenengo aldia izango da

tea errematatzailea. Imazek ere eskuma polita du, baina, batez ere, ekinean eta sendotasunean oinarritzen da bere jokoa. Beraz, logikak dio Pérezek agindu beharko lukeela atzelarien arteko lehian. Azpirik argi du bere lana: "Ahal dudan heinean, atzelariari laguntzen, sakea aprobetxatzen, eta aukera dudanetan tantoa amaitzen saiatuko naiz". Irabazten duen bikoteak Santxoren eta Erasunen aurka jokatuko du finalerdiatara.

## ADITUAREN TXOKOA



**Juan Carlos Perez**

Areto futbola

### Entrenatzaile-monitore

Orain urte batzuk, Euskadiko eta Bizkaiko federazioetik neurri batzuk martxan jarri ziren euskal areto futbolaren maila hobetzen saiatzeko helburuz. Horietako batek Nazional Mailan eta Euskal Ligan titulatu-tako entrenatzaile bat izatera derrigortu zituen taldeak. Oraintsu, Maila Gorenean ere monitorea gutxienezko baldintzak ezarri dira.

Baina titulatu eskasiarengatik edo klub baliabide ekonomiko faltagatik, egia dena da, neurri horien ondorioz, azken urteetan ezin izan dela Hirugarren Mailako eta Euskal Ligako taldeen zerrenda erabat osatu. Begi bistakoa da hamaikako futboleko eta areto futboleko entrenatzaile ikastaroa egiten dutenen artean dagoen aldea. Bosteko futboleko, taldeek baliabide ekonomiko baxuagoa dutelako, ordaintzen diren zenbaterok baxuagoak dira, eta entrenatzaileei ez die konpentsatzen euren lana ondo egiteko sartutako orduak eta egindako ahaleginak.

Horregatik, federazioak eskakizun maila jaitsi behar izan du. Euskal Ligan monitore titulua onartzen dute; titulu hori lortzea ez da hain garestia, ez ordu kopuruari eta ez diruari dagokionez. Horrela, entrenatzaile, jokalarik eta baita epaile ere aritzen ziren delegatuak matrikulatzen animatuko dira; areago urte honetan, 60 orduko ikastaro trinkoa 180 euroan dagoelako Gabonetako oporretan. Krisia joaten denean eta klubek behar besteko baliabideak dituztenean, aurreko exigentzia mailara itzultzeko sasoi izango da, baina gaur egun errealitatea nagusitzen da.

*\*Erredakzioan itzulita*

## Javi Arkarazo zesta-punta jokalarik ohi abadiñarra hil da

Eguaztenean egin zuten hileta elizkizuna

**> PILOTA** Domeka iluntzean Javier Arkarazo (Abadiño, Durangon bizi zen, 1952) zestalari ohi hil zen, bihotzeko baten ondorioz. Hileta elizkizuna eguazten arratsaldean egin zuten, Durangoko Andra Maria basilikan. Pilota erakundeetako ordezkari zein zestalari ohi asko batu ziren Arkarazori azken agurra emateko.

Arkarazok 20 urtetik gorako ibilbide oparoa izan zuen profesionaletan, eta hainbat txapelketa irabazi zituen. Euskal Herrian ez ezik, Ameriketako Estatu Batuetan ere

urte askoan jokatu zuen: Floridako Tampa eta Connecticuteko Hartford herrietako pilotalekuetan, batez ere. Ocalan eta Orlandon ere jokatu zuen. 1997an erretiratu zen, 45 urte zituela. ETBko komentariista lanetan ere aritu zen zesta-punta partidu askotan.

Hogei urtetik gora eman zituen zesta-puntako profesional gisa, eta AEBetan jokatu zuen

## Kulturalaren Gabonetako campusa ingeles eskolekin

2003. eta 2008. urte arteko gazteei zuzenduta dago

**> FUTBOLA** Aurten ere, bigarren bider, Gabonetako campusa eskainiko du Durangoko Kulturalak. Aurtengoak hainbat nobedade ditu. Batetik, klubak berak antolatuko du lehenengoz, eta ez kanpo enpresa batek. Era berean, campus osoa euskaraz emango dute, eta, futbolari lotuta, ingeles eskolak ere emango dituzte egunean ordu eta erdiz.

Gabonetako campusa 2003. eta 2008. urteen artean (biak barne) jaiotako gazteei bideratuta dago. Tabira futbol zelaian garatuko da, txanda bitan ba-

natuta: abenduaren 22, 23 eta 26an da lehenengo txanda; 29 eta 30ean, eta, urtarrilaren 2an bigarrena. Txanda batean zein bestean 09:00etatik 13:30era izango da ordutegia. Izenematea Kulturalaren webgunean egin daiteke: [www.culturaldurango.org](http://www.culturaldurango.org). Txanda baterako zenbatekoa 70 euro da, eta txanda bietakoa 120 euro.

Era berean, ohiko teknifikazio eskolekin batera, futbola modu dibertigarrian lantzen saiatuko dira. Esaterako, txapelketa bat jokatuko dute, Munduko Kopa irudikatuta.

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Eraikuntzarako materiala  
**MACOBER**  
Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 [macober@movistar.es](mailto:macober@movistar.es)

**Durangaldeko Baserritarren Elkarte**

**DIBA**

Murueta, 6  
Tel.: 94 681 87 92  
48200 ABADIÑO BIZKAIA





# ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuena ren  
arrakastaren arrazoiak:

- Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
- ASKOTARIKO** tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
- Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
- Mugarra alderako **BISTA** garbiak
- Barneko **PLAZA** zabala
- Auzoari **BURU EMATEA**
- Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
- SALTOKIAK** eraikinetik oso gertu
- Berdegunek eta **LASAITASUNA**
- ARRISKURIK GABEKO** aukera

## BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



[www.solvias.com](http://www.solvias.com) Sabadell Guipuzcoano



946 46 20 41  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)



**sukia** Zure etxean zaude  
Estás en tu casa

# Kirolean euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute 77 elkartek

Durangaldeko kirol guztietan euskara presente egotea da jomuga



Kirol elkartek, eta, udaletako, Amankomunazgoko eta Aldundiko ordezkariak familia argazkian. Txelu Anjoitia.

**> HITZARMENA** J. Derteano Durangaldeko Amankomunazgoak, eskualdeko bederatzi udalek, eta 77 kirol edo guraso elkartek hitzarmena sinatu dute kirolean euskara sustatzeko. Eguaztenean aurkeztu zuten Euskara eta Kirola Eskutik ekimena, San Agustin kultur-gunean egindako ekitaldian, eta kirol elkarte bakoitzak ekimenagaz bat egin duela erakusten duen diploma bat jaso zuen.

Kolaborazio horren bitartez kirol jardueretan euskara bul-

tzatzeko konpromisoak hartu dituzte; eta, horiek betetzeko, udaletako euskara zerbitzuen laguntza teknikoa jasoko dute. Hiru hitzarmen mota daude, eta sailkapena taldeetan euskarak bizi duen egoeraren arabera egin dute. Durangaldean praktikatzen diren kirol guztietan euskara presente egotea da jomuga, bakoitzak bere abiapuntua izanik ere.

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek kirol elkartek euskarareriko

erakutsi duten "konpromisoa" eskertu zuen hitzaurrean: "Durangaldean zein hemendik kanpo kirolaz gainera, euskara ere bakoitzaren nortasuna izatea gura dugu", adierazi zuen.

Ondoren, Itsaso Gartzia (Tabirakoko presidentea), Unai Uribarrik (Duranguesa txirrindulari elkarteko kidea) eta Ibai Zabala pilotariak euren kirolean euskarak duen presentziaren gainean jardun zuten, Asier Aranguren ekitaldiko aurkezlearen galderei erantzunez.

## Neskentzako pala eskola sortu du Durangoko pilota taldeak

### > PILOTA

Orain arte zuen eskaintza zabaldu, eta neskentzako pala eskola sortu du Durangoko pilota taldeak. 6 eta 12 urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago, eta doakoa da. Saioak ostegunero izango dira, 17:00etatik 19:00etara. Izen-ematea Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan egin daiteke, asteleheneetik barikura, 17:00etatik 21:00etara.

Mallabian, Iurretan eta Basaurin martxan daude neskentzako pala eskolak, eta "arrakasta izaten dabilta", dio Durangoko pilota eskolako kide Txaber Agirrek: "Pilotari dago-kionez, azken urteetan eskola kirolean gehien hazi den arloa nesken pala modalitatea da". Hori dela-eta, Durangon ere eskola sortzea erabaki dute, bertako gazteei aukera emateko: "Palan ikasteko eta lagunartean ondo pasatzeko gunea eskaintzea da helburua". Horretaz gainera, azken lau urteetan egin den moduan, zesta-punta eskola ere abiatu dute. Toki eta ordu berean egin daiteke izen-ematea.

## AGENDA

### > FUTBOLA

#### BIGARREN B MAILA

**Amorebieta - Toledo**  
· Zapatuan, 18:00etan, Urritxen.

#### OHOREZKO MAILA

#### Iurretako - Padura

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

#### LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

#### Ezkurdi - Berriz

· Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

#### BIGARREN ERREGIONALA

#### Iurretako B - Atxulaur

· Domekan, 16:00etan, Larrakozelaian.

#### HIRUGARREN ERREGIONALA

#### Zaldua B - Sondika

· Zapatuan, 12:00etan, Solobarrian.

#### Elorrio B - Umore Ona B

· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

### > ARETO FUTBOLA

#### BIGARREN B MAILA

#### Sasikoa - Ostadar

· Zapatuan, 19:30ean, Landakon.

#### EUSKAL LIGA

#### Presion Break - Sapuberri

· Zapatuan, 16:45ean, Berrizko kiroldegian.

#### Elorriko Buskantza B - Bilkoin Legorreta Eredu

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioren.

### > SASKIBALOA

#### LEHENENGO MAILA (gizonak)

#### Tabirako Baqué - Ostadar

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

#### LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

#### Zornotza - Salleko

· Domekan, 18:00etan, Ixerbehoan.

#### BIGARREN ERREGIONALA (gizonak)

#### Zornotza - Sumofic Munabe

· Domekan, 12:00etan, Ixerbehoan.

#### BIGARREN ERREGIONALA (emakumeak)

#### Tabirako Baqué - Zornotza

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon

### > KORRIKA

#### JOSEBA JAKA LASTERKETA

Abenduaren 8an. Nagusien lasterketarako izen-ematea: [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)

## Zaldibarren mendiko bizikleta martxa egingo dute domekan, plazatik abiatuta

XIII. aldia egingo du martxak, eta, urtero legez, izen-ematea doakoa izango da



Iazko bizikleta martxako irudi bat. Lagun Artea bizikleta elkarteak.

### > TXIRRINDULARITZA

Lagun Artea bizikleta elkarteak Zaldibarko XIII. Mendiko Bizikleta Martxa antolatu du domekarako. Iazko aldiak 300 parte-hartzailetik gora batu zituen, nahiz eta euriak ibilbidea erabat lokaztu zuen. Aurten, urtero legez, izen-ematea doakoa izango da, eta egunean bertan eman daiteke izena, 09:00etatik aurrera, udaletxe pareko plazan.

Martxa 10:00etan hasiko da, plazan bertan. Ibilbide bi prestatu dituzte: 36 kilometroko (1.300

metro positibo) eta 22 kilometroko (850 metro positibo) bana.

Ibilbidea gorabeheratsua izango da: une batzuetan malda gogorak daude, eta jarraian jaitsiera erakargarriak: "Urtero aldaketak egiten eta nobedadeak sartzen saiatzen gara, ibilbideari freskotasuna emateko", adierazi du Ibai Telleria Lagun Artea taldeko kideak.

### Jan-edana eta opariak

Mendi martxako ibilbidean zehar zein martxaren amaieran jan-edana egongo da parte-hartzaile guztientzat. Gura duenak mangerak eta dutxak eskuragarri izango ditu. Era berean, martxa amaitu ostean bizikletetarako askotariko materialak zotz egingo dituzte.

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
posta elektronikoa: [jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

## ANBOTO

### gero eta gehiago



### 11.500

ale

### 29.000

irakurle barikuro

ABADIÑO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO · GARAI · IURRETA · MALLABIA  
 · ATXONDO · MAÑARIA · OTXANDIO · ZALDIBAR · ZORNOTZA



# GREMIOEN GIDA



## DEKORAZIOA

**Jaio barnizatuak**

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrealdean eta era askotariko altzarien lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarriak.
- Era guztieta zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz.  
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421  
Faxa: 946 824 895 - info@jaioarnizatuak.com



## GARBIKETA

**AZKARGI**  
GARBIKETAK

Bulegoetako eta industrietako mantentze-lanak  
Obra osteko garbiketa  
Kristalizatuak eta abar

Goietia, 10 - 2 esk. - ELORRIO  
Tel.: 946 820 991



## LOREZAINNTZA

*Jardines Patxi Lokategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. ezk. PATXI  
48200 DURANGO 696 463 085



## ITURGINTZA

**urtiaga**

Proiektu eta Erreformak, S.L.  
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Solaguroni kalea 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374  
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

**Mallabiena**

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Ubide**  
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
625 70 22 08  
ubide@euskalnet.net



## LAN BERTIKALAK

**aurrerakada**  
lan bertikalak  
ALDAMIORIK GABE

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

MARGO LANAK  
FATXADEN KONPONKETAK  
ALTURAN EGITEN DEN EDOZEIN LAN

contacto@aurrerakada.com  
www.aurrerakada.com  
Tel.: 616 413 660  
Bernagoitia auzoa, 14  
Amorebieta-Etxano




**Profesional onenak zure zerbitzura!**







**> ZORION AGURRAK**

 zorionak@anboto.org  
 eguazteneko 14:00ak arteko epea


> Zorionak **Martin!** Gaur 9 urte! Aurten ez zara libratuko Ebaren belarri tirekadetaz! Mosu potolo bat!



> Zorionak **Nerea!** Amama Angelita, osaba Miguel, izeko Mari eta zure lehengusina Nekanearen partez musu handi bat! Primeran pasatu igandean zure familiarekin!



> Zorionak **Iker!** Domekan ospatu gendun zure zazpigarren urtebetetzie. Bikain pasatu gendun Bernagoittin lagunekin. Besarkada gozo-gozo bat etxekoan partez.



> **Luciak**, asteartean, abenduaren 2an, 6 urte egingo ditu. Zorionak gure etxeko printzesari Durangoko familia osoaren partez. Musu handi bat!



> Gure etxeko sorgintxo polittek 3 urte beteko dauz azaroaren 29xen. Zorionak osaban eta izekon partez eta mosu haundi-haundi bat printzesa!



**Zorionak Pili Aranburu!**

Pili Aranburu ANBOTOren lagunak irabazi du Hazi Fundazioaren babesagaz Eusko Label ziurtagiridun produktuekin betetako otzara. Zorionak!




> Zorionak **Unai!** Abenduaren 1ean 9 urte egingo dozuz. Mutil jatorra izeten jarraitu eta disfrutatu zure egunien. Mosu bat lurretako amama eta Abadiñoako familiaren partez.



> Gure etxeko neskatilla haundiak 12 urte egingo ditu azaroaren 30ean. Zorionak **Izaro** zure urtebetetzear. Patxo pila bat etxeko guztion partez, ondo pasa eguna.




> Athlheltecekoa zara, 11 lehoiekin, kopak ateratzeko prest, beldur barik... Zorionak **Riasat Ali** denon partez!



> **Uma**, eder hori! Zorionak zure zazpigarren urtebetetzien. Ondo-ondo pasau eta gurdi bete patxo etxeko danon partez. Itzel maite zaitugu!



> 13 mosu haundi-haundi gure **Matxalen!** Zorionak familia guztia partez!



> **Haizeak** azaroaren 28xen hilabete beteko dau. Zorionak zure lehengusu Oihantxon partez!



Jose Antonio Agirre, 4  
946 200 869  
Avda. Montevideo, 1  
946 204 383

> Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.

**> BOTIKAK**

**BARIKUA, 28** - 09:00-09:00

- **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
- **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**ZAPATUA, 29** - 09:00-09:00

- **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza) 09:00-13:30
  - **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
  - **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
  - **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
  - **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
  - **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
  - **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
  - **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
  - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza)
  - **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza) 09:00-14:00
  - **Irgoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- DOMEKA, 30** - 09:00-09:00
- **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

**ASTELEHENA, 1** - 09:00-09:00

- **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
  - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- MARTITZENA, 2** - 09:00-09:00
- **Irgoien** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
  - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUAZTENA, 3** - 09:00-09:00
- **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
  - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
- EGUENA, 4** - 09:00-09:00
- **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
  - **Iruarrizaga, Karmele** (San Miguel 15 - Zornotza) 09:00-22:00
  - **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
  - **Eguren, Isabel** (Trañabarren 15 - Abadiño)

**> TELEFONO INTERESGARRIAK**

SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... **94 681 09 49**  
Osakidetza ..... **94 600 72 00**  
Ertzaintza ..... **94 466 93 00**

**> GARRAIOAK**

Euskotren ..... **902 54 32 10**  
Bizkaibus ..... **94 448 40 80**  
Pesa ..... **902 10 12 10**  
Continental Auto ..... **945 286 466**

**> TAXIAK**

Abadiño ..... **94 681 44 70**  
Matiena ..... **606 459 988**  
Durango Geltokia ..... **94 681 10 01**  
Elorrio Geltokia ..... **94 682 00 40**  
J.L. Uriarte ..... **670 402 002**  
I. Estebez ..... **670 678 273**  
M. Galeano ..... **670 409 330**  
Iurreta .....  
Taxi auzunea ..... **688 618 690**  
Berrizko auzo taxia ..... **620 022 800**

**> UDALAK**

Abadiño ..... **94 621 55 30**  
Atxondo ..... **94 682 10 09**  
Berriz ..... **94 682 45 84**  
Durango ..... **94603 00 00**  
Elorrio ..... **94 658 27 12**  
Garai ..... **94 681 63 93**  
Iurreta ..... **94 620 12 00**  
Izurtza ..... **94 681 35 48**  
Mallabia ..... **943 17 14 61**  
Mañaria ..... **94 681 89 98**  
Otxandio ..... **945 45 00 20**  
Zaldibar ..... **94 682 70 16**

**> UDALTZAINGOA**

Abadiño ..... **94 621 55 33**  
Berriz ..... **94 682 40 36**  
Durango ..... **94 603 00 00**  
Elorrio ..... **94 682 02 18**  
Iurreta ..... **94 620 08 88**

11° 14° ZAPATUA 

10° 14° DOMEKA 

8° 12° ASTELEHENA 

6° 11° MARTITZENA 

**> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**

**Abadiño**  
(Traña-Matiena)  
Eguaztenetan  
10:00etatik aurrera

**Durango**  
Zapatu goizetan

**Zornotza**  
Domeka goizetan

**ASTEKO SALNEURRIAK:**

Letxuga.....**0,80 euro**  
Letxuga haritz hostoa .....**1 euro**  
Azelga .....**2 euro/kg**  
Espinaka txorta .....**1,20 txorta**  
Berakatz freskoa .....**1,50 txorta**  
Ilarrak .....**6 euro/kg**  
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**  
Arrautzak.....**3,80 euro/dz**  
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**  
Gari integraleko ogia .....**3,30 euro**

## “Nordic Walking'-a aurkikuntza handi bat izan da nire bizitzan”

Modan dagoen martxa modalitatea da 'Nordic Walking'-a; Txaro Gorospe instruktorea da

**> AKUILUA** Jone Guenetxea 'Nordic Walking'-a probatzen duena harrapatuta gelditzen da. Horixe gertatu zaio Txaro Gorosperi. Instruktorea da orain, eta Durangaldean ikastaroak emateari ekin dio.

**Zer da 'Nordic Walking'-a?** Martxa modalitate bat da. Ez da kirol bat, mugimendu kontzeptu bat baizik. Hanken ekintzaz gainera, gorputzaren goiko alde ere kontuan hartzen du. Gerritik gora lantzen da gehien. Ibiltze normala alderantziz da. Era berean, horretarako bereziki diseinatutako makila berezi bi behar dira.

**Beraz, mendiko edozein makilak ez du balio.** Ez. Makila hauek *Nordic Walking* kilolerako bakarrik balio dute. Trekkingeko makilek ez dute balio.

**Zelan sortu da 'Nordic Walking'-a?**

Finlandian sortu da. Han mundu guztiak eskiatzen du, eta, batez ere, iraupen eskia egiten dute. 1996an bi ikaslek, kirol teknika ikasten zebiltzala, gai honen inguruko tesi bat egin zuten. Teknika diagonal honetan jardun zuten, eta horrela garatu zen. Udan han ere ez dago elurrik, eta kirol hau egiten jarraitu gura zuten. Finlandiatik Alemaniara eraman zuten, eta herrialde horietan mediku batzuek gaixotasunaren arabera aholkatu egiten dute.

**Zelan deskubritu duzu 'Nordic Walking'-a?** Oinez ibili izan naiz, eta pilate-

sa eta gimnasia egin izan ditut. Euskal Herrian aitzindaria Xabier Madina da, eta ezagutu egin nuen. Beragaz hasierako ikastaroa eta teknifikazioa egin nituen. Nire bizitzan aurkikuntza handi bat izan zen. Oinarrizko instruktorea izateko Bernd Goldschmidtekin ikasi nuen. Instruktorea izateko berriz, Goldschmidtekin eta Eveline Feussnerrekin.

**Durangaldean irakasten zabilta. Zelako harrera izan duzu?**

Durangon eta Otxandion ibili naiz, eta, azaroaren 29an, Arratian emango dut ikastaro bat. Orain artekoak oso ondo joan dira. *Nordic Walkinen* alde onena da edozein adineko pertsonentzat dela egokia. Durangoko ikastaroan 75 urteko gizon bat etorri zen, eta bere neurrian oso ondo jardun zuen.

**Lesioren bat dutenek ere egin dezakete?**

Ni neu eskuineko belauetik operatuta nago, eta ez zait guztiz ondo gelditu. Modalitate honetan oso ondo dihardut, eta orain ez nintzateke korrika egiten hasiko.

**Zein profiletako jendea joaten da ikastaroetara?**



40tik 60 urtera bitarteko emakumeak dira. Batzuek pentsatzen dute makilekin ibiltzea nagusien kontua dela, baina ez da horrela.

**Euskal Herrian elkarte bat sortu duzue.**

Euskadi Nordic Walking Elkarte (ENWE) 2011n sortu zen, batez ere, Xabier Madinaren bidez. Bera Hernanin bizi da, eta bertan sortu zuen. Euskal Herri mailan, Gipuzkoan du indarrik handiena. Nafarroan eta Bizkaian ere badabilta ikastaroak ematen.

**Ikastaro batean zer ikasten da?**

Egun batean teknika ikasten da. Guk erabiltzen duguna Alfa teknika da: artez ibili, besoak luzatu, angelua osatu eta oinak bizkortu.

**Zeintzuk dira teknika horren abantailak?**

Makila barik ibiltzea baino eraginkorragoa da. Artikulazioetan gainkarga askoz txikiagoa da, eta zerbikaletako tentsioa erlaxatzen du. Bihotzaren lana optimizatzen du. Gainera, ekonomikoa da. Makilaren gastua baino ez du.

**Noiz emango dituzu hurrengo ikastaroak Durangaldean?**

Abenduaren 13an euskaraz eta 14an gaztelaniaz, Durangon emango ditut ikastaroak. Plazak mugatuta daude. Webgunea ere badut, [www.mar-txan.wordpress.com](http://www.mar-txan.wordpress.com).

### LAUHORTZA

**JOSE LUIS LIZUNDIA**

Euskaltzaina



#### 49.ez Azokara

Adinagatik baino ez bada ere, ez gara asko izango, datorren astean, berrogeita bederatzigarrenez Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara hurbilduko garenak, baina zilegi bekit aipamen batzuk egitea: lehendabizi, Conchita Astolari Gerediaga Elkarteko lehenengo presidenteari, zeren eta bere sinadurarik gabe nekez lortuko genuen garai hartan baimenik. Bigarrenik, Leopoldo Zugazari, bera izan baitzen Liburu Azoka egitea asmatu zuena. Ez zen posible izango, uriko orduko alkateak, Valentin Egidazuk, ez bakarrik baimena eman, apustu egin izan ez balu Moyua plazako Chavarri jauregian.

Ondoren, Balendin Lasuen aipatuko nuke, bera izan baitzen, ekipo on batez inguratutik, 1967tik hasita, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren lemaizain. Hirugarren presidentea, 1972an hautatua, izan zen Jose Ignazio Alberdi, honek diktaduraren Estatuko ordezkari zitalenen presiopean –ez ahanztu Tribunal de Orden Públicora joan behar izan zuela prozesatuta– jaso zuen elkartearen gidaritzza, beraz, Azokarena ere bai.

Gero dator, 1978an, Sabin Goi-kolea presidentea, eta presidenteorde Anton Mari Aldekoa-Otalorak hartu zion txanda 1983an. Anton Marik hartu zuen elkartearen gidaritzza hogeitaz, hasieran baita Azokarena ere, ekipo urri batek lagundurik.

Nerea Mujika presidentea eta bere taldeak dihardu azken urteotan Azokaren erantzukizun gutxi baloratuan. Ez nuke amaitu nahi, bera izan baita urterik gehien lanean jardun duena –hori bai, balorazio gutxirekin–, Jon Irazabal aipatu barik.



**2 euroan salgai**

**2015**  
Durangaldeko egutegia

**anboto** komunikabideak

**Durangaldeko egutegia salgai**  
*Durangoko Azokan eta ohiko saltokietan*

ABADIÑO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO · GARAI · IURRETA · MALLABIA  
· ATXONDO · MAÑARIA · OTXANDIO · ZALDIBAR · ZORNOTZA